		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
4.2	**Saneamendua**	0	20.000	20.000
5	**Azterketak, proiektuak eta bestelakoak idaztea**	**0**	**584.244**	**584.244**
5.1	**Hornidura**	**0**	**323.220**	**323.220**
	HOko obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
	Lezoko udalerrian uraren goi-hornidurako sistema hobetzea	0	48.220	48.220
	Hainbat hornidura-proiektu	0	100.000	100.000
	HOko sareak sektorizatzeko eta birgaitzeko proiektua	0	150.000	150.000
5.2	**Saneamendua**	**0**	**231.024**	**231.024**
	SAko obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	0	25.000	25.000
	Loiolako HUAko kontrol-eraikinean aurreikusitako obrak gauzatzeko eta zuzentzeko proiektuak	0	6.024	6.024
	Saneamendu Plan Integralaren 1. fasetik eratorritako ekintza-proiektuak	0	100.000	100.000
	Zenbait saneamendu-proiektu	0	100.000	100.000
5.3	**Bestelako jarduketak**	**0**	**30.000**	**30.000**
	Autokontsumorako panel fotovoltaikoak instalatzeko proiektua	0	30.000	30.000
6	**Obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa**	**56.035**	**143.965**	**200.000**
	Askotariko obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa	56.035	143.965	200.000
	Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak guztira	**309.898**	**2.423.389**	**2.733.287**

B.7.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

	Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
1	**Hornidura Arloa**	**375.000**	**1.051.500**	**1.426.500**
1.1	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUA**	**335.000**	**360.000**	**695.000**
	Laneko segurtasun eta osasunerako ekipo eta sistemak	0	20.000	20.000
	Erreaktiboak eta emari-neurgailuak dosifikatzeko ponpak ordeztea	90.000	90.000	180.000
	Ozonizatu beharreko airea prestatzeko ekipoak hobetzea (bero-trukagailuak eta hozte-sistemak)	95.000	0	95.000
	EUAko kontrol-gela	150.000	0	150.000
	EUA iragazteko sistema ordezteko proiektua	0	40.000	40.000
	EUAko MKZko gela berriaren proiektua	0	90.000	90.000
	Erreaktiboen eraikineko lantegia eraberritzea	0	120.000	120.000
1.2	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak**	**0**	**551.500**	**551.500**
	BK barrutik eta kanpotik birgaitzea (ihesak eta/edo kanpoko garbiketa)	0	60.000	60.000

	Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
	Hobekuntzak Darietako EUGEan (ponpak + SOR) eta biltegiaren urruneko EUGEan	0	95.000	95.000
	3. eta 4. adarretako ihesak detektatzeko ekipoak hornitzea	0	376.500	376.500
	Jaizkibelgo harguneak hobetzeko obrak: itxiturak, ateak, gainezkabidea eta eteteko balbula	0	20.000	20.000
1.3	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa**	**0**	**140.000**	**140.000**
	Injekzioak ezkerreko hegaleko tunelean 100 kotan ura sartzea ezabatzeko	0	75.000	75.000
	Añarbeko presako uhate-kateak birgaitzea	0	25.000	25.000
	Presako sorkuntza ordeztea eta BTko koadro orokorra egokitzea	0	40.000	40.000
1.4	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: orokorra**	**40.000**	**0**	**40.000**
	Hornidura Arlorako ibilgailu bat eskuratzea	40.000	0	40.000
2	**Administrazio Arloa**	**0**	**10.000**	**10.000**
	Altzariak eta bestelakoak	0	10.000	10.000
3	**Kalitatea Kontrolatzeko Arloa**	**99.500**	**300.000**	**399.500**
3.1	**Edateko uren laborategirako material eta ekipoak eskuratzea**	**99.500**	**35.000**	**134.500**
	Hornidurako altzariak	99.500	0	99.500
	Edateko uren zenbait ekipo eskuratzea	0	5.000	5.000
	Edateko uren FIA berritzea	0	30.000	30.000
3.2	**Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak eskuratzea**	**0**	**265.000**	**265.000**
	Hondakin-uren zenbait ekipo eskuratzea	0	5.000	5.000
	Hondakin-uren FIA berritzea	0	65.000	65.000
	Karbono organiko totalaren + N totalaren analizagailua (laborategikoa). Gasen instalazioa barne hartzen du	0	95.000	95.000
	AOX (NO)	0	100.000	100.000
5	**Saneamendu Arloa**	**740.000**	**1.288.521**	**2.028.521**
5.1	**Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA**	**740.000**	**846.521**	**1.586.521**
	Dekantagailuen kateetarako moldeak eta 2 dekantagailutarako kateen hornidura	175.000	0	175.000
	HUAko irteerako kutxatilaren gainezkabidea aldatzea	50.000	2.000	52.000
	Harea kentzeko sei tangak estaltzea	300.000	3.080	303.080
	HUAko kontrol-gela	150.000	0	150.000
	Lehortze termikoko kondentsadorea ordeztea	65.000	0	65.000
	HUAren lehortze termikoan bero-isolatzailea ordeztea	0	50.000	50.000
	Loiolako HUAko gasometroak ordeztea	0	299.441	299.441
	C digestorea mantentzea	0	50.000	50.000
	HUAko LAPeko ekintza-plana	0	30.000	30.000
	Loiolako HUA kontrolatzeko PLCa aldatzeko proiektua	0	45.000	45.000
	Dekantazioko usaina kentzeko ekipoa ordeztea. Usain-kentze biologikoa	0	250.000	250.000
	Harea kentzeko orgen indar-mahuka elektrikoak eta koadroa ordeztea	0	55.000	55.000

	Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
	Sare-analizagailuak ordeztea (HUAren sektorizazioa)	0	30.000	30.000
	Loiolako HUAko zenbait eraikinetako konfinamenduari, fokalizazioari eta usain-kentzeari buruzko azterketa	0	12.000	12.000
	HUAn azaleratzen diren kutsatzaileen eta mikroplastikoen presentziari eta horiek ezabatzeari buruzko azterketa	0	20.000	20.000
5.2	**Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak**	**0**	**442.000**	**442.000**
	Larrialdi Elektrikoetarako Plana gauzatzea	0	200.000	200.000
	Zubietako HUPE estazioko PLCa birprogramatzea	0	12.000	12.000
	Santa Katalinako HUPEko 4. ponpa berria instalatzea	0	200.000	200.000
	SA sareen instalazioetako LAPeko ekintza-plana	0	30.000	30.000
6	**Teknologia eta Berrikuntza Arloa**	**50.000**	**495.000**	**545.000**
	Sistemen proiektuak garatzea	25.000	75.000	100.000
	Zibersegurtasun-sistemen proiektuak garatzea	25.000	75.000	100.000
	IT ekipoak eskuratzea.	0	25.000	25.000
	Segurtasun-araudira egokitzea	0	25.000	25.000
	Bideozaintza-sistema estandarizatzea	0	100.000	100.000
	Sarraila mekatronikoen sistema ezartzea	0	75.000	75.000
	SCADA sisteman ezartzeko garapen berriak	0	90.000	90.000
	Lantokietako DPZetan suteak detektatzeko sistemak inplementatzea	0	30.000	30.000
	Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak guztira	**1.264.500**	**3.145.021**	**4.409.521**

B.7.4. Uraren ESEPE digitalari lotutako inbertsioak

	Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
1	**Hornidura Arloa**	**51.846**	**0**	**51.846**
1.2	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak**	**9.846**	**0**	**9.846**
	Uraren kalitateari buruzko Zuzentaraua betetzearekin lotutako azterketak	9.846	0	9.846
1.3	**Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa**	**42.000**	**0**	**42.000**
	Añarbeko urtegiaren jasotze topografikoa	2.000	0	2.000
	Denbora errealeko datu meteorologikoak hobetzea	40.000	0	40.000
2	**Administrazio Arloa eta Teknologia eta Berrikuntza Arloa**	**384.900**	**0**	**384.900**
	Mantentze-lanak kudeatzeko sistema hobetzea (OLMK – Ordenagailuz Lagundutako Mantentze-lanen Kudeaketa)	195.000	0	195.000
	Hobekuntzak WEBean	12.000	0	12.000

	Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
		2025eko aurrekontua	2026	Guztira
	Uraldietan herritarrak informatzeko web-aplikazio bat garatzea	13.900	0	13.900
	Datuak partekatzeko plataforma	150.000	0	150.000
	Energia-efizientziako zentro bat sortzea	14.000	0	14.000
3	**Saneamendu Arloa**	**341.282**	**0**	**341.282**
3.2	**Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak**	**341.282**	**0**	**341.282**
	SA sareen datuak hartzea eta SAko gainezkabideak eta instalazioak jasotzea	15.000	0	15.000
	Saneamendu-plan integralak idaztea: egungo egoera, hondakin-uren saneamendu-sareen funtzionamenduari, modelizazioari eta sektorizazioari buruzko datuak	44.132	0	44.132
	Ingurumen-legeria betetzeko prozesuak digitalizatzea	105.000	0	105.000
	Saneamendu-sistemaren energia-hobekuntzako prozesuak digitalizatzea (HUA eta sareak)	126.750	0	126.750
	Azpiegitura sentikorrak ebaluatzeko planak idaztea	14.900	0	14.900
	OT ekipoen bertsioak eta *backup*ak kudeatzeko tresna bat ezartzea	13.600	0	13.600
	Zerbitzariak gotortzea	7.300	0	7.300
	Uraren sektorerako alerta goiztiarreko sistema espezifiko bat inplementatzea	14.600	0	14.600
	Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak guztira	**778.028**	**0**	**778.028**

B.7.5. Inbertsioak guztira

Inbertsio mota	Zenbatekoa (BEZa kanpo)		
	2025eko aurrekontua	2026	Guztira
Inbertsioak azpiegitura zabaldu eta hobetzeko obra partekatuetan	1.156.032	3.418.282	4.574.314
Mankomunitatearen/AUSAren obra berriak	309.898	2.423.389	2.733.287
Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak	1.264.500	3.145.021	4.409.521
ESEPE	778.028	0	778.028
Guztira	**3.508.458**	**8.986.692**	**12.495.150**

B.7.6. Inbertsioen memoria

B.7.6.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa handitu eta hobetzeko obra partekatuen

* III. adarreko interkonexio-obrak (Urnieta - Lasarte-Oria)

Azken hamarkadan Añarbeko goi-sarean egindako saretze-planak ahalbidetzen du Mankomunitateko biltegi askoren hornidura ahal den guztian ziurtatuta egotea lau hornidura-adarretako punturen batean matxurak edo etenak izanez gero.

2013an “Añarbeko hornidurarako I. eta III. adarren interkonexioa eta Oriabentako EUBBtik Galarreta jarduketarako ur-horniduraren eroanbidea” eta “Errenteriako II. eta IV. hornidura-adarren interkonexioa” obrak egiteari esker, horniduraren bikoiztasuna ziurtatu zen biltegien zati handi batean, eta beharrezkoa izan zen adar horietatik urrunen dauden muturrak saretzea depositu guztietan hornidura bermatzeko.

Hori da Lasarteko eta Urnietako biltegien kasua, eta horien interkonexioak hobekuntza bat dakar hurrengo urteetarako aurreikusitako sarean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren urtean egingo ditu Lasarte-Urnieta oinezkoen bizikleta-bidearen obrak, bi udalerriak lotzen dituen Plazaolako trenbide zaharraren tunela erabiliz. Mankomunitatearentzat aukerako obra bat da II. adarraren interkonexioaren zati bat obra horrekin batera egitea, bi udalerriak lotzen baititu hornidura-sarerako trazadura hobeezin batetik, ponpaketa handia eskatuko luketen oso eremu garaietatik igarotzea saihesten baitu.

350 mm - 400 mm-ko diametroko hodi bat instalatzea aurreikusita dago bizikleta-bidearen 750 metroko luzapenean.

Jarduketarako aurreikusitako aurrekontua 500.000 €-koa izango da, eta AUSAk finantzatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin etorkizunean egingo den hitzarmen baten bidez.

* Finantzaketa partekatua duten bestelako jarduketak

Badira zenbait entitaterekin sinatutako hitzarmenetan jasotako jarduketa batzuk.

Hau da jarduketa horietarako 2026rako aurreikusi diren zuzkiduren banakapena (horien zenbatekoa 4.074.314 € da guztira):

Jarduketa	Zenbatekoa
Lezoko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea (2. fasea)	150.000
Hernaniko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea	1.935.814
Beheko Kanalaren alternatiba(1)	1.200.000
Altamira auzoaren saneamendua	788.500

(1) GFAk % 57,5eko ekarpena egitea aurreikusita dago.

Dokumentu honen 5. atalean ikus daitekeenez, jarduketa hauetarako ere aurrekontu-esleipenak aurreikusi dira 2027ko eta ondorengo ekitaldietarako (2.870.603 €-ko zenbatekoaz, guztira):

Jarduketa	Zenbatekoa

Lezoko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea (2. fasea)	2.070.603 €
Hernaniko udalerria urez hornitzeko sistema hobetzea	800.000 €

B.7.6.2. Inbertsioak Mankomunitatearen/AUSAren ekimeneko obra berrietan

Atal honetan jasotako inbertsioen betearaztearen kudeaketa, oro har, Sozietatearen Proiektu eta Obren Arloari dagokio, 7.6.3 atalean jasotakoen kasuan ez bezala, horien betearaztea, normalean, jarduten deneko instalazioa, ekipoa, etab. dagokien arloek kudeatzen baitute.

Hornidura

* **AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko planaren jarduketak:**

  Jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute azpiegituren balio-bizitza luzatzeko beren funtzionamendu-baldintza egokiak mantendu eta denboraren iragatearen ondoriozko narriadura eta, azken batean, saihetsezina den haien higadurari lotutako galmena ekiditen baitute.

  2026rako jarduketa honetarako 250.000 €-ko aurrekontua egin da.

* **1. eta 2. adarretako tuneletako hodiak birgaitzea**

  Banaketa-adarretan, hodia agerian duten 5 tunel daude. Tarte horietan narriadura puntualak ikusi dira, bai tunelaren estalduran, bai hodian bertan. Hodiaren kasuan, patologia hauek detektatu dira: kanpoko estaldurako hormigoia hondatzea, armaduraren zati bat airean utzita, eta hormigoiak babesten ez dituen hodiaren zati metalikoak oxidatzea, hala nola bentosa bat muntatzeko harguneak. Inbertsio honen bidez aurreikusi da narriadurak dauden lekuan jarduketa puntual bat egitea, zati metalikoak pasibatuta eta konpontzeko morteroa aplikatuta hormigoizko zatietan, eta babes-pintura zati metalikoetan.

  Ekintza honen zenbatekoa 100.000 €-koa da.

Saneamendua

* **AHIBEP – Azpiegitura hidraulikoa berriztatzeko planaren jarduketak:**

  Jarduketa hauek berebiziko garrantzia dute azpiegituren balio-bizitza luzatzeko beren funtzionamendu-baldintza egokiak mantendu eta denboraren iragatearen ondoriozko narriadura eta, azken batean, saihetsezina den haien higadurari lotutako galmena ekiditen baitute.

  2026rako jarduketa honetarako 250.000 €-ko aurrekontua egin da.

* **ZPLH – Oboidea-Karabel eremua birgaitzea**

Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga SAk Hernaniko Eziago industrialdean kokatzen da, eta saneamendu-sistema independente bat du prozesuko uretarako. Kolektore esklusibo bat da, Lantegiko araztegiaren irteera AUSAren saneamendu-sistema orokorrarekin lotzen duena, Loiolako hondakin-uren araztegian.

Zicuñaga paper-fabrikako lurreko hustubidea (ZPLH) izeneko kolektorea 2011n eraiki zuten eta AUSAk kudeatzen du.

Instalatutako hodia dentsitate handiko polietilenozkoa da (PE-100), 500 mm-ko kanpo-diametrokoa, eta 6.082 metroko luzera du guztira. Eroanbidearen trazadura, zati handi batean, Urumeako kolektorearen barrutik igarotzen da, eta zati horietako bat Portu auzoaren eta Karabel auzoaren artean dago, Hernanin.



Tarte horretan, non Urumeako kolektorearen sekzio oboidea ibaian behera dauden tarteak baino txikiagoa den, ZPLH kolektorea oboidearen giltzarrian dago, altzairu herdoilgaitzezko euskarri batzuen gainean bermatuta.

Kolektore handietan urtero egiten diren ikuskapenetan antzeman da galeria horretan ainguratutako habe metalikoak hondatuta daudela. Eroanbidearen uzkurtze- eta dilatazio-mugimenduek euskarri-habeen biraketa handiak eragin dituzte. Biraketa horiek habeen euskarriak behartu dituzte eta, hainbat puntutan, polietilenozko hodiari berari ere kalteak eragin dizkiote, eta beharrezkoa da hodiaren berme-sistema osoa ordeztea.

Obra 2025ean zehar lizitatu da, eta 2026rako amaitzea aurreikusi da. Jarduketa honetarako 238.448 €-ko aurrekontua egin da.

* **Loiolako HUA: Obrak Loiolako HUAko bulegoetan, kontrol-eraikinaren fatxadan eta bisitarien zentroan**

Helburua da HUAren bigarren solairuko banaketa birmoldatzea, egungo bulego itxietatik postu anitzeko eremuak izango dituzten espazio irekietara igarota, espazioak optimizatzeko, komunikazioa hobetzeko eta langileen arteko sinergiak indartzeko. Gainera, bilera-guneak prestatuko dira talde-lana eta proiektu komunen azalpena errazteko.

Bestalde, jarduketa honen barruan sartzen dira eraikinaren fatxada birgaitzeko eta beheko solairuko bilera-gela Loiolako HUAko bisitari-zentro gisa egokitzeko obrak ere.

Gaur egun egiten ari diren obra horiek 200.000 €-ko zuzkidura dute datorren 2026ko ekitaldirako, BEZa kanpo.

* **Loiolako HUAko C digestoreko birzirkulazioaren bulkada konpontzeko obrak**

Joan den 2024an, Loiolako HUAko B digestorearen birzirkulazioaren bulkadako eroanbidean ihes bat zegoela ikusi zen, eta berehala egin zen konponketa hori, zegoen burdinurtuzko eroanbidea kenduta, oso hondatuta baitzegoen, eta polietilenozko beste batekin ordeztuta. Horrek hobeto eutsiko dio korrosioarekiko erresistentziari.

C digestorea hustearekin batera, 2025. urtearen amaieran, C digestoreko birzirkulazioaren bulkadako eroanbidea konpontzeko obra egingo da.

Jarduera honen helburua, beraz, HUAko C digestoreko birzirkulazioaren bulkada konpontzea da, eta aurreikusitako kostua 82.639 €-koa da, BEZa kanpo.

* **Uraren Etxean transformazio-zentro bat jartzea eta klimatizazioa hobetzea IBAETAko HUPEan**

AUSAren saneamendu-eskema orokorra osatzen duten azpiegituren artean, Ibaetako HUPEa dago, Ondarreta pasealekuko 20. zenbakian.

Ibaetako HUPEaren gainean bulego batzuk eraiki ziren ondoren (HUPEarekiko independenteak, baina haren gainean eraikiak), bi solairutan. AUSAk azken urteotan zenbait entitate publikori alokatu dizkie bulego horiek.

“Uraren Etxea” izeneko eraikin horrek 543,20 m²-ko okupazioa du oinplanoan, baita eraikineko eremu komun batzuk ere: kanpoko patioa (ekialdeko fatxada), Ondarreta pasealekutik sartzeko atondoa, eskailera-kaxa, igogailua eta larrialdietarako eskailera.

Gaur egun, Ibaetako HUPEak eta Uraren Etxeak kontagailu elektriko bakarra dute, bi instalazioen baterako kontsumoa neurtzen duena, eta horrek zaildu egiten du azken

horren errentamendua. Bi instalazioak independizatu ahal izateko, eremuan transformazio-zentro berri bat jarri eta hargune berri bat egin behar da bertaraino.

2026rako jarduketa honetarako 337.956 €-ko aurrekontua egin da.

Gainera, espazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiari berriki alokatu izanaren ondorioz, ikusi da klimatizazio-instalazioa oso hondatuta dagoela, eta beharrezkoa dela Uraren Etxeko bi solairuen klimatizazio-instalazio osoa hobetzea.

2026rako jarduketa honetarako 100.000 €-ko aurrekontua egin da.

Bestelako jarduketak

* **Autokontsumorako panel fotovoltaikoak instalatzea**

EAEko 4/2019 eta 1/2024 legeek beren energia-kontsumoari dagokionez sorkuntza berriztagarriaren kuota propio batera iristea behartzen dituzte entitate publikoak. Helburu hori lortzeko, jarduketarik efikazetako bat autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak egitea da. AUSAk autokontsumorako potentzial handia duten hornidura- eta saneamendu-instalazioak kudeatzen ditu. Horiek, gainera, panel fotovoltaikoak instalatzeko gainazal egokiak dituzte, hala nola biltegiak eta ponpak.

Kokalekuak eta horiei lotutako kontsumoak analizatu ondoren, instalazio hauek hautatu dira:

- Amarako EUBBa
- Abringo EUBBa
- Astigarragako EUBBa
- Oiamarko EUBBa
- Igarategiko EUPEa
- Ibaetako HUPEa
- Zubietako HUPEa
- Herrerako HUPEa

2026rako jarduketa honen lehen fasea gauzatzeko 350.000 €-ko aurrekontua egin da.

Hornidura eta saneamenduko obra txikiak

Esperientziak erakutsi digu urtero zenbait jarduketa txiki gauzatzeko beharra sortzen dela, eta premiaz askotan. Jarduketa horiek, beren tamaina eta izaera ikusita, Añarbeko Urak sozietateko talde teknikoak erabakitzen ditu zuzenean, eta bidezkoa da aurrekontu-sail bat aurreikustea obra txiki horiek gauzatzeko, behar izanez gero. Horretarako, obra txikien atal bat ireki behar da, oraingoan aurrekontu txikiagoa izango duena, oro har dauden aurrekontu-murrizketak direla eta.

2026ko ekitaldirako, jarduketa horietarako, bai hornidurarako, bai saneamendurako, 20.000 €-ko kontu-sail bana aurreikusi da.

Azterketak, proiektuak eta bestelakoak idaztea

Ohikoa denez, gorago aipatutako inbertsioak gauzatzeak eskatzen du dagozkion egikaritze-proiektuak idazteko behar diren zenbatekoak sartzea inbertsioen eranskinean.

Hornidura

* **Hornidura-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

  Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

  Añarbeko Urak sozietatearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpoan egiten dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako. Zuzkidura hori bai hornidura-obretan, bai saneamendukoetan aplikatzen da.

* **HOko sareak sektorizatzeko eta birgaitzeko proiektua**

  Mankomunitatearen hornidura-sarearen hasierako diseinua 4 adar independentetan oinarritzen zen. Añarbeko goi-sarea saretzeko planari hasiera emateko, Mankomunitatearen lau hornidura-adarretako punturen batean matxurak edo etenak daudenean biltegien hornidura ahal zen guztian bermatzeko, 2013an obra hauek egin ziren: “Añarbeko hornidurarako I. eta III. adarren interkonexioa eta Oriabentako EUBBtik Galarreta jarduketarako ur-horniduraren eroanbidea” eta “Errenteriako II. eta IV. hornidura-adarren interkonexioa”.

  Sarearen saretze horrek, biltegiaren hornidura bi adar desberdinetatik ziurtatzeaz gain, kanalizazioen tarte jakin batzuk zerbitzutik kanpo utzi ahal izango ditu, horiek birgaitu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da aldez aurretik AUSAren goi-sarea sektorizatzeko lan bat egitea. Horrek ahalbidetu behar du goi-sareko adar bakoitzeko tarteak zerbitzutik kanpo uztea, birgaitze-obra bakoitzean eragindako adarraren tartea mugatuta, eta puntu berezietan eroanbideen barrualderako sarbide-puntuak instalatzea (erregistro-ahoak).

  Helburu horrekin, 2018an hornidura orokorreko sarearen sektorizazioa gauzatu zen, III. adarrean, Astigarragako igarobidean, bi puntutan, bai Ergobian (bertan III. adarra adarkatzen da), bai Astigarragako deribazioan. Gainera, azken urteotan sareko hainbat puntutan egindako goi-sarea handitzeko obrekin batera (esaterako, Zubietan, Urnietan eta Lezon sarea handitzeko obrekin), sektorizazio-balbulak instalatu dira, deribazioetan ez ezik, sare nagusian ere. Hala ere, sare nagusiko tarte batzuetan sektorizazio-balbulak jarri behar dira oraindik, hala nola Martutene, Kanpitxo, Belartza

eta Lasarteko biltegien deribazioaren bi aldeetako sarean, eta beharrezkoa da erregistro-puntuak egitea sareko puntu bereziak (ukondoak...) aurkitzeko, hodiak birgaitzeko kontuan hartu beharko direnak.

Astigarragako eta Ergobiko EUBBrako deribazioaren arteko III. adarraren tartea, Galarretako interkonexiotik adarraren zati bat hornituta sektorizatu daitekeena, ikuskatuko den lehen tartea izango da, in situ ondutako hodi jarraitu baten bidez birgaitzearen bideragarritasuna analizatzeko, hau da, beira-zuntzezko mahuka batekin, barneko lan-presioekiko erresistentea eta giza kontsumorako urarekin kontaktua izateko egokia izango den mahukarekin. Mahuken garapenak eta aplikazioak dagoeneko nahikoa berme erakutsi dute azken urteetan.

Jarduerarako zuzkitutako aurrekontua 150.000 €-koa da.

* **Hainbat hornidura-proiektu**

Ekitaldian zehar, kanpoko ingeniaritza-enpresa batek egindako proiektu baten beharra izango duen jarduketaren bat gauzatzeko beharra egongo balitz, 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da horretarako.

Saneamendua

* **Saneamendu-obretan laneko segurtasuna eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dagoen legeriak eskatzen du egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten enpresa edo profesionalak izendatzea. Horiek beharrezko gaikuntza izan beharko dute.

Añarbeko Urak sozietatearen tamaina kontuan izanda, zeregin horiek kanpoan egiten dira eta 25.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura ezarri da nahitaezko eginkizun horretarako. Zuzkidura hori bai hornidura-obretan, bai saneamendukoetan aplikatzen da.

* **Saneamendu Plan Integralaren 1. fasetik eratorritako ekintza-proiektuak**

Gaur egun, AUSAren Saneamendu Sistemen Plan Integral Orokorraren 1. fasea idazten ari dira. 1. fasea amaitu ondoren, bai 2. fasea idaztea, bai ekitaldian zehar kanpoko ingeniaritza-enpresa batek proiekturen bat idazteko beharra izango duen jarduketaren bat gauzatzea behar izanez gero, 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da horretarako.

* **Zenbait saneamendu-proiektu**

Ekitaldian zehar, kanpoko ingeniaritza-enpresa batek egindako proiektu baten beharra izango duen jarduketaren bat gauzatzeko beharra egongo balitz, 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da horretarako.

Bestelako jarduketak

* **Autokontsumorako panel fotovoltaikoak instalatzeko proiektua**

EAEko 4/2019 eta 1/2024 legeek beren energia-kontsumoari dagokionez sorkuntza berriztagarriaren kuota propio batera iristea behartzen dituzte entitate publikoak. Helburu hori lortzeko, jarduketarik efikazetako bat autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak egitea da. AUSAk autokontsumorako potentzial handia duten hornidura- eta saneamendu-instalazioak kudeatzen ditu. Horiek, gainera, panel fotovoltaikoak instalatzeko gainazal egokiak dituzte, hala nola biltegiak eta ponpak.

Ondorengo lizitazioari begira, beharrezkoa da egin beharreko lanak zehaztea, eta, horretarako, ezinbestekotzat jotzen da dagozkion proiektuak idaztea instalazio hauetarako:

- Amarako EUBBa
- Abringo EUBBa
- Astigarragako EUBBa
- Oiamarko EUBBa
- Igarategiko EUPEa
- Ibaetako HUPEa
- Zubietako HUPEa
- Herrerako HUPEa

2026rako jarduketa honen lehen fasea gauzatzeko 30.000 €-ko aurrekontua egin da.

Obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa

* **Askotariko obrak egiteko lurzoruaren kudeaketa**

AUSAren inbertsioen barruan, ohiko atala da obrak egikaritzeko lurzorua kudeatzera zuzendutakoa. Horrek balio behar du, bai Mankomunitateak eraiki beharreko azpiegiturak hartuko dituzten lurzoruen jabeei eman beharreko kalte-ordainei erantzuteko, bai, hala badagokio, hori kudeatzeko kontratatutako kanpoko zerbitzu teknikoak ordaintzeko.

200.000 €-ko aurrekontua egin da ekintza honetarako.

B.7.6.3. Zerbitzuak ustiatzeari lotutako inbertsioak

Arlo hauetan egin beharreko inbertsioak dira: Hornidura, Administrazioa, Kalitate Kontrola, Proiektuak eta Obrak, Saneamendua eta Teknologia eta Berrikuntza.

Zerbitzugintza egokiena bermatzea dute helburu, baita instalazioak (elektromekanikoak eta elektronikoak izan ohi dira) berritzea, birgaitzea edo eguneratzea ere, ekipoak zaharkitzea saihesteko (bai katalogotik kanpo geratuko direlako bai beren balio-bizitza amaitu delako). Halaber, laborategiko analisi-aparatuak, ekipo informatiko eta ofimatikoak, ibilgailuak, etab. erostea barne hartzen du.

Datorren ekitaldirako, 4.409.521 €-ko esleipena dute guztira. Hona beren xehetasuna:

Hornidura Arloa

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUA

Guztira 695.000 €-ko inbertsioa egin nahi da instalazioan, helburu hauekin:

* **Segurtasun- eta osasun-jarduketak (20.000 €)**

  Instalazioen segurtasuna hobetzera bideratuta daude. Ekintza hauen jatorria ustiategiko langileek antzemandako instalazioen arriskuei edo gabeziei buruzko ebaluazioen berrikuspenean dago. Langile horiek Añarbeko azpiegiturak ustiatu eta mantentzeko zerbitzuen enpresa adjudikaziodunaren segurtasun-batzordeari jakinarazi dizkiote.

* **Ponpa-dosifikatzaileak eta erreaktiboen emari-neurgailuak ordeztea**

  EUAn dauden ponpa-dosifikatzaileek aukera ematen dute tratamendu-prozesuaren hainbat puntutan beharrezko erreaktiboak injektatzeko. Ponpa-dosifikatzaile digital berriak jartzea aurreikusi da, SCADAtik prozesua hobeto kontrolatu ahal izateko, horien zerbitzu-tartea hobetuta eta emari- eta bolumen-dosifikatuen kontrola ere hobetuta.

  Ekintza honen zenbatekoa 180.000 eurokoa da.

* **Ozonizatu beharreko airea prestatzeko ekipoak hobetzea (bero-trukagailuak eta hozte-sistemak)**

  Aire ozonizatua sortzeko sistemetan egiten ari diren hobekuntzen barruan, bero-trukagailuak eta hozte-sistemak ordeztea aurreikusi da, arazo ugari sortzen ari baitira trukagailuetako materiala zulatzen dutelako erabilitako hozte-uraren korrosioaren ondorioz.

  Aldaketa honekin, ozonizazio-prozesuaren errendimendua hobetzea aurreikusi da, baita makinaren eskuragarritasun-indizea handitzea ere. Izan ere, urtegiko fase estratifikatua hausteagatik manganesoa handitzen den garaian, ozono bidezko oxidazio-eskuragarritasun handiagoa eskatzen du uda edangarri bihurtzeko prozesuan.

  Ekintza honen zenbatekoa 95.000 €-koa da.

* **EUAko kontrol-gela**

2025ean zehar EUAko kontrol-eraikina birmoldatu da. Jarduketa honen ondorioz kontrol-gela lekualdatu da eta lehen solairutik beheko solairura igaro da. Jarduketa honek gela horren ekipamendua aurreikusten du, bai altzariena, bai prozesu-pantailak bistaratzeko sistemena.

Ekintza honen zenbatekoa 150.000 €-koa da.

* **EUAko iragazte-sistema ordezteko proiektua**

Iragazketa-sistema kontrolatu eta erregulatzeko sistemak 40 urteko bizitza du, eta haren ordezkapena ez dago bermatuta. Proiektu bat idatziko da erregulaziorako egungo soluziorik onena zehazteko eta erregulazio-sistema banatu bat gauzatzeko aukera analizatzeko. Proiektua oinarri izango da iragazte-sistema modernizatzea lizitatu eta gauzatzeko.

Ekintza honen zenbatekoa 40.000 eurokoa da.

* **EUAko MKZko gela berriaren proiektua**

EUAko motorrak kontrolatzeko zentroko armairuak kontroleko eta ozono-sorkuntzako eraikinen artean beste leku batean kokatzeko proiektua idaztea aurreikusi da. Kendu, birkableatu eta ordezkatu beharreko mahuka elektrikoen ingeniaritza zehaztuko da proiektuan. Dokumentazio xehatua sortuko da lanen gauzatzea bigarren fase batean lizitatu ahal izateko.

Ekintza honen zenbatekoa 90.000 eurokoa da.

* **Erreaktiboen eraikineko lantegia eraberritzea**

Aurreikusita dago erreaktiboen eraikineko beheko solairuan dagoen lantegi mekanikoa eraberritzea, lantegiko komuna berritzea eta lehen solairuan lantegi elektriko bat sortzea. Eraberritze horrekin, kudeaketako ordenagailuz hornitutako lan-mahai bat instalatuko da, mantentze-lanetako ofizialek mantentze-lanen datu-baseak eta lan-parteak kontsultatu ahal izan ditzaten.

Ekintza honen zenbatekoa 120.000 eurokoa da.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Guztira 551.500 €-ko inbertsioa egin nahi da instalazioan, helburu hauekin:

* **Beheko Kanala barrutik eta kanpotik birgaitzea**

Beheko Kanalaren egungo egoerak urteko kontu-sail bat eskatzen du txukuntze- edo iragazgaizte-lanei ekiteko. Lan horiek bidea eman behar dute zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko gero eta sarriago gertatzen ari diren kontingentzien aurrean.

Ekintza honen zenbatekoa 60.000 eurokoa da.

* **Darietako EUGEa eta bere urruneko estazioa hobetzea**

Gaur egun EUGEan dauden ponpen funtzionamenduak ezegonkortasun-arazoak ditu, eta horrek akatsak eragiten ditu emariaren horniduran eta ur-presioan poligonoko sare gainpresionatuan. Ponpak, abiarazteko eragingailuak eta instalazioa kontrolatzen duen urruneko estazioa ordeztea aurreikusi da, zaharkituta baitago. Bestalde, energia elektrikoaren hornidura bermatzeko, sare elektrikoaren eta sorkuntzaren artean elikaduraren transferentzia automatikodun ekipo elektrogeno bat instalatzea aurreikusi da.

Ekintza honen zenbatekoa 95.000 eurokoa da.

* **3. eta 4. adarretako ihesak detektatzeko ekipoak hornitzea**

2025ean, 1. eta 2. adarrak hidrofonoz hornitu dira, adar horietan sor daitezkeen ihesak denbora errealean detektatzeko, ihes-puntua adierazita. Ekipamendu hori 3. eta 4. hornidura-adarretara hedatzea aurreikusi da.

Ekintza honen zenbatekoa 376.500 €-koa da.

* **Jaizkibelgo harguneak hobetzeko obrak**

Uren kalitateari buruzko 3/2023 Errege Dekretuaren arabera, harguneek babes perimetrala izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, kontu-sail bat aurreikusi da itxiturarik ez duten harguneak hornitzeko, baita harguneen ekarpenak optimizatzeko ere, dagoen eskariaren arabera.

Ekintza honen zenbatekoa 20.000 €-koa da.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko presa

Guztira 140.000 €-ko inbertsioa egin nahi da instalazioan, helburu hauekin:

* **Injekzioak ezkerreko hegaleko tunelean 100 kotan ura ez sartzeko**

Presan urtero egiten den ikuskapenean, ur-zurrusta handi bat ikusi da 100. galeriaren elkarguneko tunelean, ibaian gora, ezkerraldean. Abaniko-injekzio bat egin behar da iragazte-eremuan, ur-sarbidea buxatzeko helburuarekin.

Ekintza honen zenbatekoa 75.000 eurokoa da.

* **Añarbeko presako gainezkabideko uhateen eragintza-kateak birgaitzea**

Presa berrikusteko azken txostenean hauteman da beharrezkoa dela irekitze- edo ixte-mugimendua gainezkabideko uhateetara transmititzen duten kateen kate-mailak mantentzea eta arintzea. Horretarako, beharrezkoa da kateak desmuntatzea eta lantegi espezializatu batean koipegabetzea, eta, ondoren, berriz muntatzea eta lerrokatzea.

Ekintza honen zenbatekoa 25.000 eurokoa da.

* **Presako sorkuntza ordeztea eta BTko koadro orokorra egokitzea**

Añarbeko presak 45 urte baino gehiagoko bi ekipo elektrogeno ditu. Presaren automaten sarearekin komunikatuta egongo den (ikuskatu ahal izateko) ekipo elektrogeno intsonorizatu bakar batekin haiek ordeztea aurreikusi da. Presaren behetentsioko koadro orokorrerako elikadura ere aldatuko da, sare elektrikoaren edo ekipoaren elikaduraren transferentzia automatikoa arrazionalizatuta.

Ekintza honen zenbatekoa 40.000 eurokoa da.

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: orokorra

* **Lur orotako ibilgailu berri kabestranteduna arloko teknikarientzat**

Presaren pista perimetralaren eta hari atxikitako eremu guztien baldintzak direla eta, ibilgailuak izugarri hondatzen dira haren inguru osoan, eta etengabe matxurak izaten dituzte. Horregatik guztiagatik, eta egungo ibilgailua zaharra denez, aurreikusi da industria-erabilerarako lur orotako ibilgailu bat erostea, haren prestazioak hobetuta osagarrien bidez (hala nola kabestrantea edo pneumatiko mistoak, urarekin edo lokatzarekin gidatzeko egoeretan heltzea eta trakzioa hobetzeko).

Jarduketa hori 2025ean lizitatu zen jadanik, eta lehen lizitazio batean esleitu gabe geratu zen. Horregatik, ekintza honen zenbatekoa 40.000 €-koa da 2026rako.

Administrazio Arloa

Administrazio-zerbitzuei lotutako inbertsioak:

* **Altzariak eta bestelakoak**

2026ko ekitaldian 10.000 € esleitu dira esparru honetako behar berriak estaltzeko.

Kalitatea Kontrolatzeko Arloa

Guztira 399.500 €-ko zuzkidurarekin, helburu hauetara zuzendutako ekipo eta sistemetan inbertitzea da xedea:

Edateko uren laborategirako material eta ekipoak eskuratzea

* **EUAko edateko uren laborategirako altzariak eskuratzea**

  2025ean, EUAko kontrol-eraikina birmoldatzeko lanak egin dira, EUAko edateko uren laborategia handitzeko. Jarduketa honen ondorioz, kontrol-gela lekualdatuko da, eta lehen solairutik beheko solairura igaroko da, eta lehen solairuko espazioa laborategi handitu berriak okupatuko du. Jarduketa hau dagoeneko lizitatu eta esleitu da, eta gela horretako ekipamendua (altzariak eta instalazio osagarriak) hornitu eta jartzea aurreikusten du.

  Jarduketa honetarako 99.500 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Askotariko ekipoak eskuratzea. Edateko uren kalitatea kontrolatzeko laborategia**

  Laborategiak neurketa-ekipo eramangarri ugari ditu (pH-neurgailuak, konduktimetroak, termometroak...), baita ekipo osagarri txikiak ere (irabiagailuak, plaka bero-emaileak...), eta horiek berrezarri egin behar dira beren bizitza baliagarria gainditu ondoren edo matxuratuz gero (konponketa-kostuak berritze-kostua gainditzen duenean). Kontu-sail honek behar horri erantzuten dio.

  Jarduketa honetarako 5.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **FIA berritzea. Edateko uren kalitatea kontrolatzeko laborategia**

  Gaur egun, fluxu-injekzio bidezko analisi-sistemak (FIA) daude, edateko uretan tentsioaktiboak eta zianuroak zehazteko.

  Instalatutako bi ekipoak, MLE markakoak, fabrikatzailearen euskarritik kanpo geratu diren modeloak dira, eta laborategiak ez du alternatibarik analisi horiek egiteko matxurarik izanez gero. Azken ekipamendua 2015ean erosi zen.

  Ekipo horiek berritzea proposatzen da, jarduera hau 30.000 €-rekin zuzkituta.

Hondakin-uren laborategirako material eta ekipoak eskuratzea

* **Askotariko ekipoak eskuratzea**

Laborategiak neurketa-ekipo eramangarri ugari ditu (pH-neurgailuak, konduktimetroak, termometroak...), baita ekipo osagarri txikiak ere (irabiagailuak, plaka bero-emaileak...), eta horiek berrezarri egin behar dira beren bizitza baliagarria gainditu ondoren edo matxuratuz gero (konponketa-kostuak berritze-kostua gainditzen duenean). Kontu-sail honek behar horri erantzuten dio.

Jarduketa honetarako 5.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **FIA berritzea. Hondakin-uren kalitatea kontrolatzeko laborategia.**

Gaur egun, fluxu-injekzio bidezko analisi-sistemak (FIA) daude, tentsioaktiboak, fenolak (hondakin-uretan) eta zianuroak (hondakin-uretan) zehazteko.

Instalatutako bi ekipoak, MLE markakoak, fabrikatzailearen euskarritik kanpo geratu diren modeloak dira, eta laborategiak ez du alternatibarik analisi horiek egiteko matxurarik izanez gero. Azken ekipamendua 2015ean erosi zen.

Ekipo hori berritzea proposatzen da, jarduketa hau 65.000 €-rekin zuzkituta.

* **Karbono organiko totalaren analizatzailea + N_2 totala.**

Loiolako HUAren Ingurumen Baimen Bateratua betez, AUSAko Saneamendua Ustiatzeko Arloak karbono organiko totalaren (TOCaren) lineako hainbat analizagailu eskuratu ditu, eta horien emaitzak Uraren Euskal Agentziari jakinarazi behar zaizkio.

Datu horien kalitatea bermatzeko, beharrezkoa da laborategiko doitasun-ekipo bat izatea, ekipoen neurriak online laborategian lortutako balio batekin kontrastatzeko aukera emango duena, kalitate metrologiko askoz handiagoarekin.

Merkatuan TOCaz gain N_2 totala neur dezaketen ekipoak erosteko aukera dagoenez, horrelako ekipo bat erostea erabaki da, abantaila gehigarri bat duelako: Kjeldahl nitrogenoa erraz zehaztu ahal izatea, automatizatuta ez dagoen eta tenperatura altuko digestioak azido kontzentratuen kontsumo handiarekin egitea dakarren analisi-teknika klasikoa ordezkatuz.

Ekipo hori instalatzeak aire sintetikoa hornitzea dakar, eta, horretarako, gas berezien instalazioan hornidura-lerro berri bat gehitu behar da. Aldaketa horren kostua kontu-sail honetan sartuta dago.

Jarduketa honetarako 95.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **AOXa analizatzeko ekipoa. Hondakin-uren kalitatea kontrolatzeko laborategia**

AOX esaten zaio uretan dauden konposatu organiko halogenatuen multzoari. Parametro hori Añarbeko Uren Mankomunitateko isurketen erregelamenduan agertzen da 30 mg/l-ko muga-balioarekin.

Hala ere, orain arte laborategian ez dago analisi hori egiteko ahalmenik. Hondakin-uretan AOXa analizatzeko tresneria erostea proposatzen da.

Jarduketa honetarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

Saneamendu Arloa

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Loiolako HUA

Loiola HUAk beharrezkoa du, Añarbeko Urak sozietatearen beste instalazioek baino gehiago ere, etengabe hobetu eta eguneratzea bere ekipoak, parametro hidrauliko, fisiko-kimiko eta biologikoak prozesatu, kontrolatu eta erregulatzeko gailuak, eta materialak.

Loiolako HUAko jarduerak hauek dira:

* **Dekantagailuak: dekantagailuen kateetarako moldeak eta 2 dekantagailutarako kateen hornidura**

  Loiolako HUAn zortzi dekantagailu angeluzuzen daude, aparren eta flotatzaileen gainazala biltzeko sistema jarraituekin hornituak. Trakzio mekanikoko sistema bat da, kate plastikoak eta kate horiei lotutako errasketa kopuru jakin bat dituena. Dekantagailu bakoitzak 1.260 m²-ko azalera unitarioa du, 5.000 m³ inguruko bolumena guztira, 17 errasketa eta 102 m-ko kate plastikoa dituen zeharkako errasketen trakzio mekanikoko sistema bat, eta luzetarako errasketen trakzio mekanikoko beste sistema bat, 24 errasketa eta 720 m-ko kate plastikoa dituena.

  Denboraren joanean, trakzio mekanikoko sistemek, zehazki kate plastikoek, higadura handia jasaten dute, eta horien luzaketak eta hausturak izaten dira. Horren ondorioz tratamendua ez da hain eraginkorra. Funtsezkoa da dekantazio-sistemak behar bezala funtzionatzea, hondakin-ura arazteko eta isurketak baimentzeko exijitutako parametroak bete ahal izateko. Horretarako, oso garrantzitsua da trakzio mekanikoko sistema egoera hobeezinean izatea.

  Asmoa da Loiolako HUAko dekantagailuetan dauden kate plastikoen mailak erreproduzitzeko behar diren moldeak eraikitzea.

  Obra dagoeneko lizitatu eta adjudikatu da, eta 2026. urtean zehar amaituko da. Jarduketa honetarako 175.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Laneko segurtasun eta osasuneko ekipo eta sistemak**

  Langileen segurtasuna areagotzea da helburua, babes kolektiboko ekipoak eta sistemak aldatuta. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

* **Loiolako HUA: HUAko irteera-kutxatilaren gainezkabidea aldatzea**

Loiolako HUAko irteera-kutxatila angeluzuzena da. Aurpegi batetik, dekantagailuetatik datorren ura (ur araztua), eta, bestetik, instalazioaren bypassetatik datorren ura (euri-garaian) iristen da, eta, aurreko aurpegitik, ura lurreko hustubiderantz ateratzen da. Gaur egun, HUAren irteerako kutxatilak aluminiozko uhate modular bat du irteeraren ondoan, eta, horren ondorioz, kutxatila kargan dago maila egokian mantentzeko, ur industrialeko ponpek behar bezala funtzionatu ahal izan dezaten. Egoera horren ondorioz, bai kutxatila, bai bypassen kolektorea beti kargan daude eta horien solido asko pilatzen dira. Horrek zaildu egiten du bertan dauden elementu guztiak mantentzea. Además, la compuerta modular ha sufrido un deterioro importante llegando a romperse y cayendo dentro del colector de salida de planta.

Dekantagailuetatik datorren uraren sarrerako kolektorearen ondoan uhate herdoilgaitz bat jartzea proposatzen da, ur industrialeko ponpen mailari eta funtzionamenduari eusteko eta, gainera, irteerako kutxatilan eta bypass-kolektorean solidoak metatzea saihesteko.

Jarduketarako 52.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Harea kentzeko sei tangak estaltzea**

Loiolako HUAko harea kentzeko eta koipea kentzeko eraikinak harea kentzeko sei tanga ditu, eta korrosio-arazo gehien dagoen puntuetako bat da, bai metalezko zatietan, bai hormigoizkoetan, eraikinaren barruan dagoen hidrogeno sulfuroaren ondorioz. Eraikinak aireztatzeko eta airea erauzteko sistema bat du instalatuta eraikinaren bolumen osorako. Eraikinean hidrogeno sulfuroaren maila handia dagoenez, aireztapen hori ez da eraginkorra. Hortaz, zoruaren arrasean dauden harea kentzeko sei tangak estaltzea proposatzen da, harea kentzeko sei tangen ur-laminaren eta lurraren arrasean dagoen estalduraren artean dagoen airea soilik ateratzeko eta aireztatzeko. Horrela, hidrogeno sulfuroa eraikinera ateratzea saihestuko da.

Obra dagoeneko lizitatu eta adjudikatu da, eta 2026. urtean zehar amaituko da. Jarduketa honetarako 303.080 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **HUAko kontrol-gela**

HUAren bigarren solairuko banaketa birmoldatzeko eta espazioak eta SCADA birmoldatzeko obren ondoren, HUAko kontrol-gela egokitzeko unea izango da, ikus-entzunezko ekipoez eta altzariz hornituta, talde-lana eta proiektu komunen azalpena errazteko.

Jarduketarako 150.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lehortze termikoko eraikina: Lehortze termikoko kondentsadorea ordeztea**

Loiolako HUAko lehortze termikoak bi zirkuitu bereizi ditu: horietako batetik lohi heze-lehorra igarotzen da, eta bestetik lohi hezea lehortzen duen airea. Airea lohiarekin kontaktuan jartzen denean, lohia lehortzen du eta hautsez eta hezetasunez asetzen da. Aire-zirkuituaren instalazioaren zati batek airearen hezetasuna eta hautsa ezabatzeko balio du. Zehazki, airearen hezetasuna kentzen duen ekipo horietako bat kondentsadorea da. Ekipo hori, denboraren joanaren eta erabilera-baldintzen eraginez, nabarmen hondatu da. Beraz, haren ordez, efizienteagoa izango den beste bat jartzea proposatzen da.

2025ean aurrekontuan sartutako eta gauzatu gabeko jarduketa hau 65.000 €-rekin sartu dira berriro (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Bero-isolatzailea lehortze termikoan**

Loiolako HUAko lehortze termikoko hodietan barrena dabilen aireak tenperatura altua du, lohi deshidratatua lehortzeko balio duena. Hodi horiek bero-galera handia dute, eta, ondorioz, sistema ez da efizientea. Bero-galera duten hodietan bero-isolatzaile bat jartzea proposatzen da, instalazioa efizientea izan dadin.

Jarduketarako 50.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUAko gasometroak ordeztea**

Loiolako HUAko digestore anaerobioetan sortutako biogasa mintz bikoitzeko bi gasometrotan biltegiratzen da. Horiek 2.150 m³-ko biltegiratze unitarioko edukiera eta 20 mbar-eko zerbitzu presioa dute.

Gasometroak 2005. urtean jarri ziren abian, eta egindako azken azterketan ikusi zen ainguraketa-eraztunari eusten dioten torloju batzuk askatuta zeudela eta barne-mintza degradatuta zegoela, eta, horren ondorioz, eta biogas-ihes txikiak zeudela.

Jarduketa hau 2025ean aurrekontuan jaso zen eta ez zen gauzatu, lizitazioa hutsik geratu baitzen. Berriz ere sartu da 299.441 €-ko zenbatekoarekin (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: C digestorea mantentzea**

Loiolako HUAko digestore anaerobioetan sortutako biogasa mintz bikoitzeko bi gasometrotan biltegiratzen da. Horiek 2.150 m³-ko biltegiratze unitarioko edukiera eta 20 mbar-eko zerbitzu presioa dute.

Loiolako HUAn hiru digestore daude lohien linean. Horietako bi martxan daude eta hirugarrena erreserba gisa dago. Urtean behin, horietako bat hustu egiten da eta sakon berrikusten da: horman eta kupulan egon daitezkeen pitzadurak garbitu, berrikusi eta konpontzen dira, hodiak telebista-kamerarekin ikuskatzen dira, higaduraren ondorioz hodiak konpontzen dira, etab.

Jarduketarako 50.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Kontroleko PLCak aldatzeko proiektua**

  Loiolako HUAn, ekipo guztien kontrola eta funtzionamendua automata programagarri batzuen bidez egiten da. Automata programagarri horiek denboraren joanean zaharkituta geratu dira, deskatalogatuta egoteraino eta ordezko piezen eskasia izateraino.

  Proposatzen da automata programagarri horien ordez azken belaunaldiko fidagarriagoak eta modernoagoak izango diren eta landa-datuak eskuratu eta komunikatzea erraztuko duten beste batzuk jartzeko proiektua egitea. Datu horiek erabiltzen dira instalazioan jarduteko, aginte-taulak sortzeko, barneko eta kanpoko txostenak sortzeko eta hala eskatzen duten organismoei datuak bidaltzeko.

  Jarduketarako 45.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Dekantazioko usaina-kentze kimikoaren ordez usain-kentze biologikoa jartzea**

  Loiolako HUAn usaina kentzeko lau ekipo daude instalatuta. Horiek merkaptanoak eta hidrogeno sulfuroa ezabatzen dituzte erreaktibo kimikoak dosifikatuta, zehazki, sodio hidroxidoa, sodio hipokloritoa eta azido sulfurikoa. Usainak ezabatzeko metodo hori eraginkorra da, % 90erainoko errendimenduak baititu, baina erreaktibo kimikoen kantitate handiak kontsumitzen ditu.

  Usaina kentzeko instalazioak honako hauez osatuta daude: erreaktiboak biltegiratzeko andelak, haizagailuak, polipropilenozko hodiak eta gas-garbigailuak (“*scrubber*”). Ekipo horiek guztiak denborarekin hondatzen doaz dituzten erreaktiboen ondorioz, eta, bereziki, dekantazioan usaina kentzeko gas-garbigailuak (“*scrubber*”) bizitza baliagarriaren amaieran daude, erreaktiboen eta, kasu honetan, izpi ultramoreen eraginez, aire zabalean baitaude.

  Gas-garbigailu horiek ordezteko behar den inbertsio handia dela eta, proposatzen da usainak ezabatzeko teknologia erabat aldatzea eta, horren ordez, usain-kentze biologikoa ezartzea, erabat baztertuz erreaktiboen kontsumoa, horrelako instalazio batek dakartzan aldizkako berrikuspenak eta erreaktibo arriskutsuen manipulazioa langileen aldetik.

  Jarduketa honetarako 250.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Harea kentzeko orgen indar-mahuka elektrikoak eta koadroa ordeztea**

  Loiolako HUAko harea eta koipea kentzeko eraikinak sei orga ditu, harea kentzeko dauden sei tangetako hareak eta koipeak biltzeko. Orga horiek eraikinaren albo batean aire zabalean dagoen koadro elektriko batetik elikatzen dira elektrikoki. Haren egoera dela-eta (16 urtez funtzionamenduan) eta eguraldi txarraren eraginpean

dagoenez, proposatzen da berri bat eraikitzea eta duela gutxi finen eraikinaren ondoan eraikitako koadroen gelan kokatzea.

Jarduketarako 55.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Sare-analizagailuak ordeztea**

Loiolako HUAko hainbat prozesuren kontsumoa ezagutzea beharrezkoa zenez, 2017an sektorizazio energetiko bat egin zen, sareen 28 analizagailu jarrita. Ekipo horiekin hainbat parametro biltegiratzen dira SCADAn, hala nola kontsumoa, potentzia aktiboa, potentzia erreaktiboa, firen kosinua, etab.

Ekipo horietako gehienak hondatuta eta deskatalogatuta daudenez, proposatzen da prestazio gehiagoko 28 sare-analizagailu modernoagoak erostea.

Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Zenbait eraikinetako konfinamenduari, fokalizazioari eta usain-kentzeari buruzko azterketa**

Loiolako HUAn lau usaina kentzeko lau ekipo daude, eraikinen barruko aire kutsatua jaso eta erabat garbi kanporatzen dutenak. Azterketa bat egitea proposatzen da, aurretik identifikatu gabeko usain-fokuak identifikatzeko eta dauden fokuak optimizatu eta hobetzeko. Loiolako HUAko zenbait eraikinetako konfinamenduari, fokalizazioari eta usain-kentzeari buruzko azterketa bat egitea proposatzen da.

Jarduketarako 12.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Loiolako HUA: Azaleratzen diren kutsatzaileen eta mikroplastikoen presentziari eta horiek ezabatzeari buruzko azterketa analitikoa**

Loiolako HUAren efluenteari buruzko azterketa analitiko bat egitea proposatzen da, konposatu farmazeutikoen, konposatu herbizida azidoen eta abarren neurketa zehazteko, eta Loiolako HUAren hainbat etapatan azterketa bat egitea hondakin-uretan dagoen mikroplastiko kantitateari buruz.

Jarduketarako 20.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: sareak

Kontzeptu honetan, guztira 442.000 €-ko zuzkiduraz, hainbat jarduketa biltzen dira, besteak beste, zenbait HUPEtan gailuak berritzea eta instalatzea, betiere ustiapeneko eta mantentze-lanetako langileen eta energia elektrikoaren kontsumoaren beharra ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin. Horrek berekin ekarriko du, orobat, instalazioetan jardutean laneko segurtasun eta osasuneko arriskuak murriztea.

Jarduketak honako hauek dira:

* **Larrialdi Elektrikoetarako Plana gauzatzea**

  Gaur egun, Añarbeko Urak sozietateak Larrialdi Elektrikoetarako Plan bat du, instalazioren batean hornidura elektrikoko arazoren bat dagoen bakoitzean aktibatzen dena. Plan horren helburua da instalazio batzuk ekipo elektrogeno finkoz, ekipo elektrogeno eramangarriz, biltegiratze-deposituz, maretxalez, etab. hornitzea, akats elektrikorik izanez gero instalazioen zerbitzua denbora laburrean berrezarri ahal izateko.

  Azken gertakarien ondorioz, egoeraren azterketa bat egin da, eta erabaki da gasolioa biltegiratzeko ahalmena handitzea dauden ekipo elektrogeno finkoetan, eta, gainera, ekipo elektrogeno finkoen kopurua handitzea, horietako bakoitzean 24 orduko autonomia lortzeko.

  Jarduketarako 200.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Laneko segurtasun eta osasuneko ekipo eta sistemak**

  Langileen segurtasuna areagotzea da helburua, babes kolektiboko ekipoak eta sistemak aldatuta. Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da.

* **Saneamendu-sarea: Zubietako HUPEko PLCa birprogramatzea**

  Zubietako HUPEa saneamendu-sarean dagoen ponpatze-estaziorik garrantzitsuenetako bat da, bai instalatutako potentziagatik, bai bultzatzen duen emariagatik. 2016an abian jarri zenetik, estazioko PLCaren programazioak funtzionamendu-arazoak eman ditu. Gainera, ez da egokitzen Añarbeko Urak sozietateak bere gainerako instalazioetan ezarritako funtzionamendu-irizpideetara. Proposatzen da Zubietako HUPEko PLCa birprogramatzea Añarbeko Urak sozietatearen irizpideei jarraituz.

  Jarduketarako 12.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Saneamendu-sarea: Santa Katalinako HUPEko 4. ponpa instalatzea**

  Hasiera batean, Santa Katalinako HUPEak 132 kW-ko eta 625 l/s-ko emari nominaleko lau Ingersoll Dresser ponpa zituen instalatuta, hondakin-ura urpeko hustubidera eramateko. Ondoren, Loiolako HUA abian jarri zenean, Santa Katalinako HUPEa ponpaketa mistokoa izatera igaro zen, ponpa bat kendu zen bi ponpa instalatzeko eta Donostiako erdialdetik zetorren hondakin-ura Loiolako HUArantz bultzatzeko, eta beste hirurekin euri-ura urpeko hustubiderantz bultzatzeko. Ondoren, Donostiako erdialdetik zetorren ura Loiolako HUAraino eramateko tinkaketa bat egin zen, lehen aipatutako bi ponpak desinstalatu ziren eta Santa Katalinako HUPEa hiru ponparekin utzi zen euri-ura urpeko hustubidera eramateko.

Proposatzen da ponpa berri efizienteago bat instalatzea, jatorrizko ponpatze-ahalmena mantentzeko errendimendua hobetuko duena. Jarduketarako 200.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

Teknologia eta Berrikuntza Arloa

* **IT-OT sistemen arloko proiektuak**

Asmoa da enpresaren IKT sistemak modernizatzeko eta optimizatzeko ekintzak gauzatzea, baita prozesuen digitalizazioa areagotzea ere, efizientzia eta errendimendua hobetzeko.

Jarduketarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Zibersegurtasunaren arloko kudeaketa-proiektuak**

Asmoa da enpresaren azpiegitura digitala mehatxu zibernetikoetatik babestera bideratutako ekintzak gauzatzea, barne dela segurtasun-politikak, intzidentziak monitorizatzeko sistemak eta hondamendien aurrean berreskuratze-planak inplementatzea.

Jarduketarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Ekipo informatikoen hornidura**

Ekipamendu berriak eskuratzea funtsezkoa da azpiegitura teknologikoa eguneratuta eta efiziente mantentzeko. Horren barruan sartzen da enpresaren eguneroko funtzionamendurako behar diren *hardware*a eta *software*a erostea, eta zerbitzari, lan-estazio, biltegiratze-gailu eta kudeaketa-software berriak eskuratzea. Sareko ekipoak erostea ere sartzen da, hala nola *router*rak eta *switch*ak, sarearen konektibitatea eta errendimendua hobetzeko.

Jarduketarako 25.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Segurtasun-araudira egokitzea**

Inbertsio honen bidez, aholkularitza-enpresa bat kontratatu nahi da funtsezko araudiak garatzeko eta ezartzeko, hala nola DBLO (Datuen Babesa), SEN (Segurtasun Eskema Nazionala) eta NIS2 Europako zuzentarau berria.

Araudia betetze hori ez da legezko betebeharra soilik, gure bezero eta bazkideekiko konfiantzazko aitorpena ere bada. Ez betetzeak zigor ekonomiko larriak eta gure izen onari kalte larria ekar diezazkioke. NIS2 zuzentarauak, bereziki, sektore kritikoetarako zibersegurtasun-exijentziak areagotzen ditu; beraz, egokitzapen hori atzeraezina eta estrategikoa da.

Jarduketarako 25.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Bideozaintza-sistema estandarizatzea**

Konpainian dauden bideozaintzako teknologiak bateratu nahi dira estandar bakar baten eta kudeaketa-sistema zentralizatu baten pean.

Estandarizazioak konplexutasuna eta mantentze-kostuak murrizten ditu. Sistema bateratu batek monitorizazioaren efikazia hobetzen du, gertakarien aurrean azkarrago erantzutea ahalbidetzen du eta beste segurtasun-plataforma batzuekin integratzea errazten du, gure instalazioen segurtasun fisikoa kostu-efizientzia irizpideen arabera indartuta.

Jarduketarako 100.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Sarraila mekatronikoen sistema ezartzea**

Asmoa da sarraila tradizionalen ordez sarraila adimendunen sistema bat ezartzea, elementu mekanikoak eta elektronikoak konbinatzen dituena, kontrol-sarbide granularra eta auditagarria ahalbidetzeko.

Sistema horrek izugarri igotzen du segurtasun fisikoa. Aukera ematen du sarbideak urrunetik eta berehala emateko eta ukatzeko, nor, non eta noiz sartzen den erregistratzeko, eta giltzak galtzeari lotutako arriskuak ezabatzeko. Funtsezko inbertsioa da organizazioaren eremu kritikoak babesteko.

Jarduketarako 75.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **SCADA sisteman ezartzeko garapen berriak**

Proiektu honek litezkeen garapen berriak eta gure SCADA plataformaren bilakaera ditu ardatz. Helburuetako bat da gaur egungo kontrol-pantailak ingurune bisual modernoago, intuitiboago eta, batez ere, erabakiak hartzera bideratuago baterantz eboluzionatzea.

Irismenaren barruan sartzen dira:

- Birdiseinu grafikoa: pantailen estetika modernizatzea, bereizmen handiko grafikoak, animazioak eta kolore-paleta estandarizatua erabilita, irakurgarritasuna hobetzeko eta operadorearen nekea murrizteko.
- Key Performance Indicator – KPIen pantailak sortzea: *dashboard* eta aginte-koadro dinamiko berriak garatzea. Pantaila horiek, datu operatiboak erakusteaz gain, horiek funtsezko errendimendu-adierazle bihurtuko dituzte (adibidez: energia-efizientzia, produkzio-kostuak, OEEa, araudiak betetzea), eta kontsulta azkarra eta kontsolidatua ahalbidetuko dute zuzendaritzarentzat eta instalazioko arduradunentzat.

- Geruza berriak sartzea, hala nola sorkuntza elektrikoa edo instalazioen segurtasuna.

Inbertsio honek kontrol-tresna soil batetik adimen operazionaleko zentro estrategiko batera eraldatzen du SCADA. Jarduketarako 90.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Lantokietako DPZetan suteak detektatzeko sistemak inplementatzea**

Gure datuak prozesatzeko zentroetan suteen aurkako babesa lehentasun estrategikoa da informazio kritikoaren jarraitutasun operatiboa eta osotasuna bermatzeko. Hiru DPZetan suteak itzaltzeko sistema automatikoak instalatzeak erantzuten dio, aktibo teknologikoak eta azpiegitura babesteko beharrari ez ezik, Segurtasun Eskema Nazionala (SEN) betetzeko betebeharrari ere, SENek informazio-sistemen babes fisikorako kontrol espezifikoak exijitzen baititu.

DPZk sua itzaltzeko soluzio aurreratuez hornitzeak minimizatu egiten du gertakari baten aurrean kalte materialak izateko eta datuak galtzeko arriskua, esku-hartze azkarra ziurtatzen du eta berreskuratzeko denbora nabarmen murrizten du. Gainera, informazioa babesteko ahalmen indartzen digu, sektoreko jardunbide egokiekin eta indarrean dauden arau-eskakizunekin lerrokatzeko.

Jarduketarako 30.000 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

B.7.6.4. Uraren ESEPE digitala

MITECOk berriki DIGURBE proiektua behin-behinean onartu ondoren (AUSAk eta Mankomunitateko beste 9 udalerrik osatutako elkarteak aurkeztu zuen), AUSAren azpiegituretarako beharrezkoak diren jarduketa guztiak garatzeko unea da, enpresaren arlo funtzional guztietako sistemen funtzionaltasuna hobetzeko.

Hona adierazitako jarduketak:

* **Hornidura Arloa**

Multzo honen barruan, 2025ean amaitu gabeko jarduketak aurkeztu dira, azpiegiturak hobeto ezagutzea helburu dutenak, sistemen hornidura-plan integralekin eta uraren kalitatea betetzearekin lotutako hainbat azterketa eta proiektu idatzita.

Era berean, prezipitazio handien aurrean (eredu hidraulikoak eta hidrologikoak) Añarbe ibaiaren arroak izango duen portaera fidagarritasun handiagoz iragartzeko elementuak eduki nahi dira.

Jarduketen multzorako 51.846 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Saneamendu Arloa**

Multzo horren barruan, azpiegiturak hobeto ezagutzera bideratutako jarduketak aurkeztu dira, saneamendu-plan integralekin eta HUAko irteeratik ingurune hartzailerantz uraren kalitatea betetzearekin lotutako hainbat azterketa eta proiektu idatzita. Era berean, kudeaketa efizienteagoa egiteko balioko duten elementuak eta tresnak eduki nahi dira, efluenteak arazteko eta garraiatzeko prozesuak energetikoki optimizatuta.

Jarduketen multzorako 341.482 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

* **Administrazio Arloa eta Teknologia eta Berrikuntza Arloa**

Multzo honen barruan aurkeztu dira aipatutako arloan kudeaketa eraginkorragoa egiteko balioko duten elementuak eta tresnak edukitzeko jarduketak, mantentze-sistemak, kontrol ekonomikokoak eta fakturen kudeaketakoak eta zibersegurtasuna kontrolatzeko sistemak hobetuta.

Jarduketen multzorako 384.900 €-ko zuzkidura ezarri da (BEZa kanpo).

B.7.7. Sarrera jakin batzuk gauzatzearen edo kostuetan aurreztearen mende dauden inbertsioak

Aurreko guztiaz gain, nabarmendu behar da, jakina denez, ekitaldi bakoitzean zehar inbertsioen exekuzioa aldaketa batzuen mende dagoela ezinbestean. Izan ere, jakina da obrak esleitzeko prozesuetan batzuetan beherapenak izaten direla haiek adjudikatzeko aurrekontuan, lizitazio-prozesura aurkezten diren enpresen arteko lehia logikoaren ondorioz. Beherapen horien zenbatekoa egoera ekonomiko orokorraren eta, bereziki, obra publikoaren eta eraikuntzaren merkatuaren arabera aldatzen da. eta aurrezpenak dakartzate, Mankomunitatearen izenean AUSAk egiten dituen obren likidazioa ia beti oso neurrizkoa izaten den heinean —batzuetan, adjudikazio-aurrekontuaren behetik ere geratzen da—.

Inbertsioen aurrekontua garatu eta gauzatzean, halaber, jarduketetakoren batek hasieran kalkulatutako irismen tekniko eta ekonomikoa baino txikiagoa izan ohi du; eta, zenbaitetan, ez da beharrezkoak izaten ere, dagokion azterketa edo proiektua egin eta osagai tekniko zehatzak bertatik bertara arakatu ondoren lehen eskura zegoen informazioa behar adina zehatza ez zela eta, egiaz, jarduketa beharrezkoa ez dela ikusi baita. Horrek, jakina, xede horretarako aurreikusitako baliabide ekonomikoak zati batean edo osorik askatzen ditu.

Baina egia da ere kontrakoa gerta daitekeela, hau da, jarduketaren baterako edo batzuetarako kalkulatutako zenbatekoak nahikoak ez direla; izan ere, ezinezkoa baita haien benetako irismena zein den jakitea dagokion egikaritze-proiektua egin aurretik. Eta, oso gutxitan gertatu bada ere, obraren bat adjudikazio-aurrekontuaren gainetik dagoen prezioan likida daiteke, egikaritze-proiektua idazteko unean duten garrantzia zehaztasun osoz aurreikustea zailak diren faktore zehazgaitz batzuen ondorioz ere —oro har, lursailaren izaeragatik eta eraginpeko zerbitzuak berrezartzeagatik—.

Horrenbestez, komeni da, egikaritu ahal izateko, diru-sarrera zehatz batzuk gauzatzearen edo goian adierazitako kostu-aurrezpenaren mende dauden inbertsioei buruzko epigrafe bat sartzea:

Ekintza	Deskribapena	Zenbatekoa (€-tan)
1	Saneamendu-kolektore handietarako sarbideak egokitzea	350.000
2	Loiolako HUA handitzea	12.000.000
3	Santa Barbarako EUBBtik Hernanirako hornidura-sistema optimizatzea	2.000.000
4	Loiolako HUAko tratamendu biologikoko putzuak estaltzea	2.200.000
5	Itsas uraren intrusioa kentzea	500.000
6	Lurreko hustubidea birgaitzeko eta hobetzeko alternatibak aztertzea	200.000
7	Ibaetako HUPEtik Santa Katalinako HUPErako bulkada-hodia zabaltzea	1.600.000
8	Petritegiko EUAko kontrol-armairuen PLC zaharkituak ordeztea	1.000.000
9	Uraren arloko araudi berria betetzeari lotutako azterketak eta proiektuak	150.000
10	Itsas uraren intrusioari buruzko azterketa monitorizazio bidez	65.000
11	Presaren instrumentazioaren kontrol-sistema banatua ordezteko proiektua	25.000
12	Loiolako HUAko usaina kentzeko ekipoak aldatzea	300.000
13	Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko hiri-kolektorea (2. fasea)	2.500.000
14	Oiartzun ibaiaren eskuinaldeko hiri-kolektorearen proiektua idaztea (3. fasea)	125.000
15	Presaren ezpondak garbitzea	100.000
16	Anoetako ibarraren inguruko saneamendu-proiektua idaztea	250.000
17	Anoetako ibarreko saneamendu-obra egitea	8.000.000
18	Bahea Sagues - Santa Katalinan	450.000
19	Herrerako HUAko tunelaren aurreko bahea	450.000
20	Kuarteletik Monpaseko lurreko hustubiderako sarbidea hobetzea	200.000
21	Saneamendu-mugaketaren ondoriozko jarduketak	500.000
22	HUPE batzuetako ponpaketa-putzuen konponketak	150.000
23	AUSAren instalazioen komunikazio-sarea hobetzea	150.000
24	Kloroa biltegiratzeko errail-habearen sistema ordeztea eta baskula hobetzea	100.000
25	Hobekuntza elektrikoak Loiolako HUAn	250.000
26	Petritegiko ozonizazio- eta iragazketa-sistema hobetzeko obrak	1.500.000
27	Hornidura-uren korrosio-ahalmenari buruzko azterketa	40.000
28	Ezkerreko azpialdeko hustubidearen hodi behartuaren egitura-osotasuna analizatzea eta Riko hodia eta balbula hobetzeko lanak egitea	125.000
29	Hornidura-sareetan mikroturbinak instalatzea	400.000
30	ZPLH berria eraikitzea	12.000.000
31	Gainezkabidea birmoldatzeko eta deskonexioak egiteko obrak Pasaiako badiaren ingurunean (Donostia-Pasaia)	6.000.000
32	Usaina kentzeko sistema kimikoak biologiko bihurtzea (2. fasea)	500.000
33	Pasai Donibaneren saneamendua	500.000
34	Errotaburuko 2. solairua birmoldatzeko eta egokitzeko obrak	500.000
35	Gas naturalaren kogenerazio-motorren koadroak	250.000
36	HUAn garabiak berritzea	120.000
37	Instalazioen eta pista perimetralaren seinaleztapena hobetzea	25.000
38	Etxeko hobi septikoa ordeztea eta konexio berriak egitea	30.000
39	Hornidura-harguneen itxitura	20.000
40	Birzirkulazio-kanalaren uhatea	40.000
41	Gasen zentraletan aldaketak egitea - HUAko alarmak	40.000
42	Head Space hondakin-uretako lurrunkorretarako	35.000
43	Erauzketa fase solidoan (Petritegiko EUA)	50.000
44	IT Arloko ibilgailua	40.000
45	Zibersegurtasunari buruzko kongresua	75.000
46	Urnieta eta Loiola arteko I-III adarren interkonexio-obrak (2. fasea)	2.000.000
47	San Pedroko hustubidea konpontzeko proiektua	100.000
48	San Pedroko hustubidea konpontzeko obrak	1.000.000
49	Igarategin eta Goikoetxen ponpa berriak instalatzea	100.000
50	Loiolako HUAko estalkia birgaitzeko obrak	200.000

B.8. Transferentzien eranskina

2023ko ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak, Pasaiako Udalak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hitzarmen bat formalizatu zuten Pasai Donibaneko saneamendu-proiektuaren lehen faseko obrak egiteko Bonantza pasealekuaren eta Santiago plazaren arteko tartean.

Hitzarmen horren arabera, obrak Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharko ditu, eta Añarbek konpromisoa hartu zuen jarduketaren % 10 finantzatzeko. Horretarako, 2023ko aurrekontuan 190.000 €-ko aurrekontu-esleipena jaso zen. Jarduketa hori oraindik gauzatu gabe dagoenez eta, ondorioz, Añarbek oraindik ekarpenik egin ez duenez, bidezkoa da aipatutako aurrekontu-esleipena 2026ko aurrekontuan sartzea.

B.9. AUSAren aurreikusitako kontuak

2026ko abenduaren 31rako aurreikusitako balantzea

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		**ONDARE GARBIA**	
Ibilgetu ukiezina	1.604.263	Funts propioak	
Ibilgetu materiala	188.734.771	Kapital harpidetua	3.649.000
Higiezinetako inbertsioak	0	Erreserbak	85.129.880
Taldeko enpresen inbertsioak epe luzera	2.880.587	Ekitaldiko emaitza	4.691.575
Aktibo ez-korrontea guztira	**193.219.621**	Funts propioak guztira	93.470.455
		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	97.165.660
AKTIBO KORRONTEA		**Ondare garbia guztira**	**190.636.115**
Izakinak	126.615		
Zordun komertzialak eta kobratzeko dauden bestelako kontuak		**PASIBO EZ-KORRONTEA**	
Salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak	4.126.454	Epe luzerako zorrak	3.560.621
Zenbait zordun	1.536.422	**Pasibo ez-korrontea guztira**	**3.560.621**
Zordunak guztira	5.662.876		
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	3.517.337	**PASIBO KORRONTEA**	
Aktibo korrontea guztira	**9.306.828**	Epe laburrerako zorrak	3.421.288
		Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	
		Hornitzaileak	3.641.811
		Zenbait hartzekodun	984.191
		Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	282.423
		Hartzekodunak guztira	4.908.425
		Pasibo korrontea guztira	**8.329.713**
AKTIBOA GUZTIRA	**202.526.449**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA**	**202.526.449**

2026ko ekitaldiari dagozkion aurreikusitako galdu-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	**24.476.674**
a) Salmentak	564.103
b) Zerbitzugintzak	23.912.571
4. Hornikuntzak	**-10.925.432**
b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa	-5.259.430
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	-5.666.002
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	**561.081**
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko bestelakoak	561.081
6. Langile-gastuak	**-2.966.458**
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	-2.308.445
b) Karga sozialak	-658.013
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	**-3.799.844**
a) Kanpoko zerbitzuak	-2.616.860
b) Tributuak	-1.182.984
8. Ibilgetuaren amortizazioa	**-8.142.030**
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	**5.238.144**
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	**4.442.134**
13. Finantza-sarrerak	**330.000**
a) Ondare-tresnetako partaidetzenak	300.000
a1) Taldeko eta elkartutako enpresenak	300.000
b) Balore negoziagarrienak eta bestelako finantza-tresnenak	30.000
b2) Hirugarrenenak	30.000
14. Finantza-gastuak	**-72.559**
b) Hirugarrenekiko zorren ondoriozkoak	-72.559
A.2) FINANTZA-EMAITZA	**257.441**
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	**4.699.575**
17. Mozkinen gaineko zerga	**-8.000**
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	**4.691.575**
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	**4.691.575**

Aurreko egoera-orrian azaltzen den emaitza ekonomikoak erakusten du magnitude horren aurreikuspena 2026ko urteko kontuetan. Aipatu beharra dago, ordea, ikus daitekeenez, emaitza horretan kapitaleko dirulaguntzen eta banatu beharreko bestelako sarreren intsuldaketa jasota dagoela, guztira 5.238 mila €-ko zenbatekoaz.

Horrela, zerbitzugintzaren ondoriozko guztizko gastuak —zerbitzuaren erabiltzaileek erabiltzen duten azpiegitura osoaren amortizazio teknikoa barne, haien finantzaketaren jatorria kontuan hartu gabe (funts propioak, zorpetzea, dirulaguntzak edo lagapenak)— oinarrizko zerbitzugintzaren eta beste jarduera osagarri batzuen ondorioz jasotzen diren sarrerak baino 546 mila € handiagoak dira.

2026ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurreikusitako ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2026ko ekitaldiari dagozkion sarrera eta gastu aitortuen egoera-orriak

Kontzeptua	2026
A) Galdu-irabazien kontuaren emaitza	**4.691.575**
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
III. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.992.578
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	**1.992.578**
Transferentziak galdu-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(5.238.144)
C) Transferentziak galdu-irabazien kontura guztira	**(5.238.144)**
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	**1.446.009**

2026ko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, guztira

	Kapital eskrituratua	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2024ko amaierako saldoa	**3.649.000**	**81.821.946**	**144.655**	**102.100.227**	**187.715.828**
B) 2025eko hasierako saldo doitua	**3.649.000**	**81.821.946**	**144.655**	**102.100.227**	**187.715.828**
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	3.163.279	3.365.158	6.528.437
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	144.655	(144.655)	(5.054.159)	(5.054.159)
C) 2025eko amaierako saldoa	**3.649.000**	**81.966.601**	**3.163.279**	**100.411.226**	**189.190.106**
D) 2026ko hasierako saldo doitua	**3.649.000**	**81.966.601**	**3.163.279**	**100.411.226**	**189.190.106**
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	4.691.575	1.992.578	6.684.153
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	3.163.279	(3.163.279)	(5.238.144)	(5.238.144)
E) 2026ko amaierako saldoa	**3.649.000**	**85.129.880**	**4.691.575**	**97.165.660**	**190.636.115**

C) Sociedad Pública Gestión de Centrales del Añarbe SAren aurrekontua

C.1. Sarrera

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietateak % 70eko partaidetza du Gestión de Centrales del Añarbe SA (aurrerantzean GECASA) sozietatearen kapital sozialean. Sozietate honen xedea da minizentral hidroelektrikoak, kogenerazio-instalazioak, biomasaren energia-aprobetxamendukoak, eguzki-energiakoak eta bestelako energiakoak sustatu, eraiki, birmoldatu eta hornitzea, bai produkzio elektrikorako, bai produkzio termiko edo mekanikorako, kontsumo propiora edo salmentara bideratuta.

2003. urtean, Sozietatearen partaidetza GECASAn horren kapital sozialaren % 2,44tik % 70era igo zen, Añarbe II zentral hidroelektrikoaren ekarpenari eta Sozietatearen beste bazkidea den Energiaren Euskal Erakundearen % 5 eskuratzeari esker.

Gaur egun, GECASAri energia elektriko hidroelektrikoa produzitzeko emandako ustiapen-emakidak Añarbe I Zentrala (presaren oineko zentrala) eta Añarbe II Zentrala (Goizuetako udalerrian dagoena) izenekoei dagozkie.

Gainera, Sozietateak Loiolako HUAn energiaren kogeneraziorako bi zentral ditu: batek gas naturala erabiltzen duten hiru motor ditu (1.416 kW-ko potentzia unitarioa dute); besteak, berriz, hondakin-urak arazteko prozesutik sortutako biogasa erabiltzen duten bi motor ditu (805 kW-ko potentzia unitarioa dute).

Azkenik, aipatzekoa da zortzi eguzki-zentral fotovoltaiko kudeatzen dituela. Horietatik zazpik 5 kW-ko potentzia izendatua dute eta AUSAri erosi zizkion. Zortzigarrenak, berriz, 70 kW-ko potentzia izendatua du eta Oriabentako edateko ura banatzeko biltegiaren gainean instalatu zuen GECASAk.

C.2. GECASAren aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

GECASAren 2026rako aurreikusitako egoera-orriak premisa hauetan oinarrituta egin dira:

- Añarbe I eta Añarbe II zentral hidroelektrikoetarako kalkulatutako produkzioak 6 GWh eta 4 GWh dira, hurrenez hurren. Aurreikuspen horiek egiteko kontuan hartu da 2026an KKHk ez duela gauzatuko Añarbe I zentralaren emakida iraungitzeko espedientea.

- Aurreikusi da biogasaren kogenerazioak 2026an autokontsumo-erregimenean funtzionatzea eta gas naturalaren kogenerazioak den-dena erregimenean funtzionatzea.

- Gas naturalaren eroste-prezioa 45 €/MWh ingurukoa izango dela estimatu da.

- Gas naturalaren kogenerazioa instalatzeko eragiketarekiko osagarriaren balioa 75 €/MWh-koa dela estimatu da.

- Energia elektrikoaren merkatuan 60 €/MWh-ko salmenta-prezioa estimatu da.

- Energia elektrikoa AUSAri saltzeko prezioa (merkatuko prezioa eta kontzeptu erregulatuak barne hartzen ditu) 105 €/MWh ingurukoa izango dela estimatu da.

C.3. Kapitulukako laburpena

Kapitulua	Sarreren egoera-orria	Euro
3	Tasak eta bestelako sarrerak	4.600.987
5	Ondare-sarrerak	50.000
8	Finantza-aktiboak	-70.722
Sarreren egoera-orria guztira		**4.580.265**

Kapitulua	Gastuen egoera-orria	Euro
1	Langile-gastuak	150.159
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.941.535
6	Inbertsio errealak	60.000
8	Finantza-aktiboak	428.571
Gastuen egoera-orria guztira		**4.580.265**

C.4. Kontu-sailkako xehetasuna

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	**Izena**	**Euro**
343.01	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 1	360.000
343.02	Energia elektrikoaren salmenta – ZH 2	240.000
343.03	Energia elektrikoaren salmenta – Kogenerazioa	2.918.495
343.06	Energia elektrikoaren salmenta - Fotovoltaikoa	45.272
343.04	Energia termikoaren salmenta	1.037.220
III. kapitulua guztira		**4.600.897**
560.00	Gordailuen interesak	50.000

SARREREN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	**Izena**	**Euro**
V. kapitulua guztira		**50.000**
880.01	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	-70.722
VIII. kapitulua guztira		**-70.722**
Sarreren egoera-orria guztira		**4.580.265**

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
Kontu-saila	**Izena**	**Euro**
130.01	Langile lan-kontratudunak	110.288
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak eta Geroa	39.461
163.05	Bestelako gastu sozialak	410
I. kapitulua guztira		**150.159**
201.01	Alokairuak	13.440
201.02	Alokairuak – Kogenerazioa	28.299
210.01	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 1	5.000
210.02	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – ZH 2	25.000
210.03	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Kogenerazioa	476.670
210.04	Konponketa, mantentze-lanak eta kontserbazioa – Fotovoltaikoak	7.000
221.01	Energia elektrikoa – ZH 1	1.000
221.02	Energia elektrikoa – ZH 2	1.000
221.03	Energia elektrikoa – Kogenerazioa	20.000
221.04	Energia elektrikoa – Beste zenbait	360
221.05	Gas naturala - Kogenerazioa	2.221.890
221.06	Biogasa - Kogenerazioa	564.120
224.01	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 1	6.120

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
224.02	Ibilgetuaren aseguru-primak – ZH 2	13.404
224.03	Ibilgetuaren aseguru-primak – Kogenerazioa	16.000
224.04	Ibilgetuaren aseguru-primak – Fotovoltaikoak	2.637
225.01	Bestelako tributuak – ZH 1	2.300
225.02	Bestelako tributuak – ZH 2	1.004
225.03	Bestelako tributuak – Kogenerazioa	12.500
225.04	Bestelako tributuak – Fotovoltaikoak	850
225.05	Konfederazio Hidrografikoaren kanona – ZH 1	133.017
225.06	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 1	7.344
225.07	Ur kontinentalak erabiltzearen ondoriozko kanona – ZH 2	4.896
225.08	EEEBZ – ZH 1	25.200
225.09	EEEBZ – ZH 2	16.800
225.10	EEEBZ – Kogenerazioa	150.940
225.11	EEEBZ – Fotovoltaikoak	3.169
225.99	Sozietateen gaineko zerga	103.965
226.99	Hainbat gastu – ZH 1	4.500
226.99	Hainbat gastu – ZH 2	3.500
226.99	Askotariko gastuak – ZHak	10.000
226.99	Askotariko gastuak – Kogenerazioa	20.000
226.99	Askotariko gastuak – Fotovoltaikoak	90
226.99	Askotariko gastuak	27.200
227.01	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 1	2.500
227.02	Beste enpresa batzuek egindako lanak – ZH 2	3.500
227.03	Beste enpresa batzuek egindako lanak – Kogenerazioa	6.000
227.04	Beste enpresa batzuek egindako lanak – Fotovoltaikoak	320
II. kapitulua guztira		**3.941.535**

GASTUEN EGOERA-ORRIA		
623.01	ZH II: Hobetzeko jarduketak (kojineteak, besoak eta gidari-zorroak, etab. berritzea)	22.000
623.03	KOGE: HT ur-zirkuituko (biogasa) “aeroak” ordeztea	27.000
623.04	EZF: Sasoetako EZFa hobetzeko jarduketak	6.000
623.06	Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000
VI. kapitulua guztira		**60.000**
872.90	Gainerako ekarpenak (dibidenduak)	428.571
VIII. kapitulua guztira		**428.571**
Gastuen egoera-orria guztira		**4.580.265**

C.5. Konpromiso-kredituen xehetasuna

GECASAk ez du inolako konpromisorik etorkizuneko ekitaldietarako.

C.6. Gastu arrunteko kapituluen banakapena jardueren arabera

Kapitulua	ZHak	KOGE	EZFak	Gastu orokorrak	Guztira
Langile-gastuak				**150.159**	**150.159**
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	**266.086**	**3.516.419**	**14.065**	**144.965**	**3.941.535**
-Alokairuak		28.299		13.440	41.739
-Konponketak eta mantentze-lanak	30.000	476.670	7.000		513.670
-Hornidurak	2.000	2.806.010		360	2.808.370
-Aseguru-primak	19.525	16.000	2.637		38.162
-Tributuak	190.561	163.440	4.019	103.965	461.985
-Askotariko gastuak	18.000	20.000	90	27.200	65.290
-Beste enpresa batzuek egindako lanak	6.000	6.000	319		12.319
Guztira	**266.086**	**3.516.419**	**14.065**	**295.124**	**4.091.694**

C.7. Inbertsioen eranskina

Hona GECASAren aurreikusitako egoera-orrietan sartutako inbertsioen xehetasuna:

Jarduketa	Zenbatekoa (BEZa kanpo)
ZH II: Hobetzeko jarduketak (kojineteak, besoak eta gidari-zorroak, etab. berritzea)	22.000
KOGE: HT ur-zirkuituko (biogasa) “aeroak” ordeztea	27.000
EZF: Sasoetako EZFa hobetzeko jarduketak	6.000
Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak	5.000
Guztira	**60.000**

C.8. GECASAren aurreikusitako kontuak

GECASAren aurreikusitako balantzea 2026ko abenduaren 31n

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA		**ONDARE GARBIA**	
Ibilgetu materiala	2.163.520	Funts propioak	
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	**2.163.520**	Kapital harpidetua	1.812.802
		Jaulkipen-prima	960.352
		Erreserbak	362.560
AKTIBO KORRONTEA		Ekitaldiko emaitza	329.236
Zordun komertzialak eta kobratzeko		Funts propioak guztira	3.464.950
Salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko bezeroak	1.436.608	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	18.209
Zordunak guztira	1.436.608	**ONDARE GARBIA GUZTIRA**	**3.483.159**
Eskudirua eta bestelako aktibo likido	2.358.172	**PASIBO EZ-KORRONTEA**	
AKTIBO KORRONTEA GUZTIRA	**3.794.780**	Geroratuko zergaren ondoriozko pasiboak	5.747
		Epe luzerako periodifikatzeak	887.000
		PASIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	**892.747**
		PASIBO KORRONTEA	
		Epe laburrerako zorrak	0
		Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako	
		Hornitzaileak	1.257.938
		Ogasun publikoa, sozietateen gaineko zergaren ondoriozko hartzekodun	103.965
		Administrazio publikoekiko bestelako	40.079
		Hartzekodunak guztira	1.401.982
		Epe laburrerako periodifikatzeak	180.412
		PASIBO KORRONTEA GUZTIRA	**1.582.394**
AKTIBOA GUZTIRA	**5.958.300**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA**	**5.958.300**

2026ko ekitaldiari dagozkion GECASAren aurreikusitako galdu-irabazien kontua

A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	**4.600.987**
a) Salmentak	4.600.987
6. Langile-gastuak	**(150.159)**
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(110.288)
b) Karga sozialak	(39.871)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	**(3.837.570)**
a) Kanpoko zerbitzuak	(3.479.550)
b) Tributuak	(358.020)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	**(234.343)**
9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena	**4.286**
A.1) USTIAPEN-EMAITZA	**383.201**
13. Finantza-sarrerak	**50.000**
14. Finantza-gastuak	**0**
A.2) FINANTZA-EMAITZA	**50.000**
A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA	**433.201**
17. Mozkinen gaineko zerga	**(103.965)**
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA	**329.236**
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	**329.236**

2026ko ekitaldiari dagozkion GECASAren aurreikusitako ondarean izandako aldaketen egoera-orria

2026ko ekitaldiari dagozkion sarrera eta gastu aitortuen egoera-orriak

Kontzeptua	Zenbatekoa
A) Galdu-irabazien kontuaren emaitza	**329.236**
Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak	
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira	**329.236**
Transferentziak galdu-irabazien kontura	
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	(3.257)
IX. Zerga-ondorioa	(1.029)
C) Transferentziak galdu-irabazien kontura guztira	**(4.286)**
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	**324.950**

2026ko ekitaldiari dagokion ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, guztira

	Kapital eskrituratua	Jaulkipen-prima	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2024ko amaierako saldoa	**1.812.802**	**1.003.054**	**362.560**	**936.009**	**24.722**	**4.139.147**
B) 2025eko hasierako saldo doitua	**1.812.802**	**1.003.054**	**362.560**	**936.009**	**24.722**	**4.139.147**
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	385.869	(3.257)	382.612
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	-	-	(936.009)	-	(936.009)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
C) 2025eko amaierako saldoa	**1.812.802**	**1.003.054**	**362.560**	**385.869**	**21.465**	**3.585.750**
D) 2026ko hasierako saldo doitua	**1.812.802**	**1.003.054**	**362.560**	**385.869**	**21.465**	**3.585.750**
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	329.236	(3.256)	325.980
II. Eragiketak bazkide edo jabeekin						
4. (-) Dibidenduen banaketa	-	(42.702)	-	(385.869)	-	(428.571)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
E) 2026ko amaierako saldoa	**1.812.802**	**960.352**	**362.560**	**329.236**	**18.209**	**3.483.159**

D) Aurrekontu kontsolidatua

Añarbeko Uren Mankomunitatea, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA eta Gestión de Centrales del Añarbe SA

SARREREN EGOERA-ORRI BATERATUA						
Kap.	**Izena**	**AUMA**	**AUSA**	**GECASA**	**Doikuntzak**	**Bateratua**
3	Tasak eta bestelako sarrerak	10.001	24.819.827	4.600.987	-2.435.272	26.995.543
		-1	-725.841	-1.709.430		
5	Ondare-sarrerak	0	547.928	50.000	-329.204	268.724
		0	-329.204	0		
7	Kapital-transferentziak	0	1.992.578	0	0	1.992.578
		0	0	0		
8	Finantza-aktiboak	0	2.703.977	-70.722	0	2.633.255
		0	0	0		
9	Finantza-pasiboak	0	608.081	0	0	608.081
		0	0	0		
Sarreren egoera-orria		**10.001**	**30.672.391**	**4.580.265**	**-2.764.476**	**32.498.181**

GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA						
Kap.	**Izena**	**AUMA**	**AUSA**	**GECASA**	**Doikuntzak**	**Bateratua**
1	Langile-gastuak	0	2.966.459	150.159	0	3.116.618
		0	0	0		
2	Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	10.001	14.733.276	3.941.535	-2.464.476	16.220.336
		-1	-1.709.429	-755.046		
3	Finantza-gastuak	0	72.558	0	0	72.558
		0	0	0		
6	Inbertsio errealak	0	12.495.150	60.000	0	12.555.150
		0	0	0		
7	Kapital-transferentziak	0	190.000	0	0	190.000
		0	0	0		
8	Finantza-aktiboak	0	0	428.571	-300.000	128.571
		0	0	-300.000		
9	Finantza-pasiboak	0	214.948	0	0	214.948
		0	0	0		
Gastuen egoera-orria		**10.001**	**30.672.391**	**4.580.265**	**-2.764.476**	**32.498.181**

E) Maileguen egoera

2026ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren hasieran eta itxieran aurreikusitako zorpetzea

2026ko urtarrilaren 1erako aurreikusitako egoera

AUSA

Entitatea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
Nafarroako Rural Kutxa	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	994.660	-	20/12/2035
Kutxabank	2022/11/22	1.895.551	Euribor + % 0,39	1.772.876	-	22/11/2037
AUSAren saldoa guztira 2026ko urtarrilaren 1ean				**2.767.536**	**-**	

GECASA

Entitatea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAren saldoa guztira 2026ko urtarrilaren 1ean				**0**	**-**	

2026ko abenduaren 31rako aurreikusitako egoera

AUSA

Entitatea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa	Interes-tasa	Saldo bizia	Erabili gabea	Muga-eguna
Nafarroako Rural Kutxa	2020/12/20	1.226.942	Euribor + % 0,685	908.422	-	20/12/2035
Kutxabank	2022/11/22	1.895.551	Euribor + % 0,39	1.644.166	-	22/11/2037
2026ko mailegu berria	Finkatzeke	1.251.390		608.081	-	
AUSAren saldoa guztira 2026ko abenduaren 31n				**3.160.669**	**-**	

GECASA

Entitatea	Birfinantzaketa edo formalizazioa	Zenbatekoa (€-tan)	Interes-tasa	Saldo bizia (€-tan)	Erabili gabea	Muga-eguna
GECASAren saldoa guztira 2026ko abenduaren 31n				**0**	**-**	

F) Zorpetzearen eranskina

Sociedad Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAk 2026ko abenduaren 31n duen zorra, aurreko koadroetan adierazitako xehetasunaren arabera, 3.160.669 €-koa da guztira, eta ez dago inolako zorrik aurreikusita ez Mankomunitatearentzat, ez GECASArentzat.

Zorpetze-mailari dagokionez, haren erregulazioa Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan eta hurrengoetan jasota dago.

Aipatutako arauaren 53. artikuluan xedatzen den prozeduran oinarrituz, ondoren Sozietatearen zorpetze-maila xehatzen da, kontuan hartuta maila hori lortzen dela, batetik, indarrean dauden kreditu-eragiketen ondoriozko finantza-karga ordaintzera bideratzen diren kopuruen eta, bestetik, eragiketa arrunten ondoriozko sarreren arteko zatiduratik.

2025eko ekitaldirako eragiketa arrunten ondoriozko sarreren likidazio-aurreikuspena 24.996.803 €-koa da. Formalizatuta dauden eta 2026an formalizatuko diren kreditu-eragiketengatik urte horretan ordaindu beharreko finantza-karga teorikoa 302.093 €-koa izango dela aurreikusten da.

Azaldu denaren arabera, ondorioztatzen da Sozietatean aurreikusitako legezko zorpetze-maila, 2026ko ekitaldirako, % 1,21ekoa dela.

III. AURREKONTU OROKORRA BETEARAZTEKO ARAUA

I. TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITU-ALDAKETAK

1. artikulua. Denbora-esparrua

Aurrekontua onartu, kudeatu eta likidatzeko, toki-erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-araudian eta aurrekontua gauzatzeko arau honetan xedatutakora egokitu beharko da. Aurrekontuaren indarraldi bera izango du arau honek. Hori dela eta, aurrekontua luzatuz gero, arau hau ere indarrean egongo da aldi horretan.

2. artikulua. Esparru funtzionala

Arau hau Aurrekontu Orokorra betearazteko eta garatzeko aplikatuko da. Hortaz, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA eta Gestión de Centrales del Añarbe SA sozietateen aurrekontua betearazteko ere aplikatzekoa izango da, hala dagokionean.

3. artikulua. Aurrekontua

Ekitaldirako Aurrekontu Orokorra osatzen dute Mankomunitatearen beraren eta haren Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA eta Gestión de Centrales del Añarbe SA sozietateen aurrekontuek. Horietan, aipatutako erakundeek aitortzea aurreikusten duten obligazioen adierazpen zifratu eta sistematikoa jasotzen da (Mankomunitatearen kasuan, izaera mugatzailearekin), baita ekitaldian zehar likidatzea aurreikusten duten eskubideena ere. Zehazki, honako hauek dira bakoitzaren zenbatekoak (eurotan adierazita):

Entitatea	Gastuen egoera-orriak	Sarreren egoera-orriak	Baliabide arruntak
Mankomunitatea	10.001	10.001	10.001
AUSA	30.672.391	30.672.391	25.367.755
GECASA	4.580.265	4.580.265	4.650.987

4. artikulua. Kredituen lotura juridikoa

Mankomunitatearen gastu propioen aurrekontuko “Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak” izeneko 2. kapituluaren lotura juridikoa kapitulu-mailakoa izango dela ezartzen da.

5. artikulua. Zorpetzea

Gehieneko berme- eta zorpetze-mailak Aurrekontu Orokorra osatzen duten 2026rako aurrekontuetako sarreren egoera-orrietan jasotako baliabide arrunten zenbateko osoan finkatzen dira.

6. artikulua. Kreditu zabalgarriak

Mankomunitatearen gastuen aurrekontuko honako kontu-sail hau zabaldu egin daiteke harentzat esleitutako finantzaketaren arabera:

KREDITU ZABALGARRIA			FINANTZAKETA		
Kontu-saila	**Izena**	**Hasierako zenbatekoa** (€-tan)	**Kontu-saila**	**Izena**	**Hasierako zenbatekoa** (€-tan)
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1	399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1

Eskubide handiagoak aitortzearen arabera zabaldu daitekeen kreditua kredituak gaitzeko erregimenaren bidez finantzatuko da.

7. artikulua. Kreditu gehigarriak

Mankomunitateko Presidentetzari dagokio kreditu osagarriak onartzea, baldin eta Aurrekontu Orokor Bateratuaren % 5 gainditzen ez badute eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen badira.

II. TITULUA. BARNE-KONTROLA

8. artikulua. Barne-kontroleko eredua

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina (TOALTB) onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 213. artikuluan, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan (BKEDan), Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren (GLHTEAFAren) IV. tituluan eta Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuan (**BKFD**an) xedatutakoaren arabera, Mankomunitatearen jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne-kontrola kontu-hartzailetzako organoak egingo du, kontu-hartzailetzaren eta finantza-kontrolaren bidez. Horren barruan, TOALTBaren 68. artikuluan aipatutako efikazia eta efizientziaren kontrola sartuko da.

Kontu-hartzailetzako organoa da edozein fiskalizazio-lanen arduraduna eta Mankomunitatearen barne-kontrolaren esparruan jarduteko eskumenaren titularra.

Titulu honetako artikuluetan aurreikusi ez den guztian, goian aipatutako araudia izango da aplikatzekoa.

9. artikulua. Barne-kontrolaren esparru subjektiboa

Barne-kontrolaren esparru subjektiboa bat dator Mankomunitatearenarekin.

10. artikulua. Kontu-hartzailetzako eginkizunaren faseak

Kontu-hartzailetzako eginkizunak fase hauek izango ditu:

a) Aldez aurretik fiskalizatzea eduki ekonomikoko eskubideak aitortzen dituzten, gastuak baimendu edo onartzen dituzten, gastuak xedatu edo konprometitzen dituzten eta funts eta baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak.

b) Obligazioak aitortzeko eta inbertsioaren egiaztapen materialean esku hartzeko aurretiazko esku-hartzea.

c) Ordainketa agintzeko esku-hartze formala.

11. artikulua. Diru-sarreren gaineko kontu-hartzailetzako eginkizuna

Mankomunitatearen eskubideen eta diru-sarreren aldez aurreko fiskalizazioaren ordez, kontabilitateko arrazoi-hartzeari berez dagokion kontrola eta ondorengo finantza-kontrola ezartzen dira.

Nolanahi ere, bidegabeko sarreren itzulketetatik eratorritako agintze eta ordainketa materialeko egintzak aldez aurretik fiskalizatzen dira.

Mankomunitatearen alde eskubideak aitortzearen edo likidatzearen edo funtsak edo baloreak mugitzearen arloko eragozpenek ez dute ondorio etengarririk izango.

12. artikulua. Gastuen gaineko kontu-hartzailetzako eginkizuna

Jarraian adierazitako arloetan zerrendatutako gastu-espedienteei buruzko oinarrizko baldintzak fiskalizatzeko eta aldez aurretik esku-hartze mugatua egiteko araubidearen bitartez egingo da Mankomunitatearen aurretiko fiskalizazioa eta esku-hartzea, horretarako onartutako jarraibidean jasotakoaren arabera:

1. Langileen arloa.
2. Kontratazioa, ondare-kontratuak eta kontratu pribatuak eta ondare-erantzukizuna.
3. Dirulaguntzak, transferentziak eta hitzarmenak.
4. Hirigintza.
5. Finantza-gastuak.

6. Ordainketaren gaineko esku-hartze formala eta materiala, kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak.

Gastu-espediente bakoitzean aztertu beharreko puntuak zehaztean, aurrekontu-kreditu egokia egoteaz, obligazioa edo gastua sortzen duen organoaren eskumenaz, aurreko gastu-faseen aldeko fiskalizazioaz, aplikatzekoak diren xedapenen egiaztagiriak betetzeaz eta inbertsioaren egiaztapen materialaz gain, jarduketa publikoetan objektibotasuna, gardentasuna, diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna bermatzen dituzten baldintzak jasotzen dira. Era berean, une bakoitzean aplikatu beharreko oinarrizko baldintzak aurretiaz fiskalizatzeari eta esku-hartze mugatuari buruzko araubidean ezarritako betekizunak aztertuko dira.

Era berean, organo kontu-hartzaileak egoki jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, baina ohar horiek ez dute ondorio etengarririk izango dagozkion espedienteak tramitatzean.

Fiskalizazioaren eta aldez aurreko esku-hartzearen araubide orokorra aplikatuko da aurrez fiskalizazioaren eta esku-hartze mugatuaren ondorioetarako oinarrizko betekizunen araubidea adostu ez den gastu eta obligazio motei dagokienez, baita zehaztu gabeko zenbatekoa duten gastuei dagokienez ere.

Kontu-hartzailetzako eginkizuna betetzeko prozedurari dagokionez, horretarako onartutako instrukzioan xedatutakoa beteko da.

13. artikulua. Gastuen aldez aurreko fiskalizazioari lotuta ez daudenak

Gastu hauek ez dira aldez aurreko fiskalizazioaren mende egongo:

a) Material inbentariaezineko gastuak.

b) Kontratu txikiak, arau honetan azaldutakoaren arabera.

c) Aldizkako gastuak eta segidako traktuko gainerakoak, jatorri duten egintza edo kontratuaren hasierako aldiari edo haren aldaketei dagokien gastua fiskalizatu ondoren.

Gastu horiek finantza-kontrolaren xede izango dira, kontrol iraunkorraren modalitatean, eta modu objektibo, sistematiko eta ausazkoan gauzatuko da lagin adierazgarrien gainean, planifikatzen diren finantza-kontroleko jarduketen esparruan.

14. artikulua. Fiskalizazioa ondorengo erabateko esku-hartzean

Oinarrizko betekizunen aurretiazko fiskalizazioaren eta esku-hartze mugatuaren mende dauden obligazio edo gastuak ondorengo beste erabateko esku-hartze baten xede izango dira, aipatutako fiskalizazioa eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean, laginketa- edo auditoretza-teknikak aplikatuta, kasu bakoitzean aplikatu beharreko xedapenekin bat datozela egiaztatzeko eta kredituen kudeaketan legezkotasunaren betetze-maila zehazteko.

Ondorengo erabateko kontrol hori finantza-kontrol iraunkorraren barruan sartzen da, eta, hala badagokio, organo kontu-hartzaileak egindako Finantza Kontroleko Urteko Planean (FKUPan) gauzatuko da.

15. artikulua. Obligazioak aitortzeko eta inbertsioaren egiaztapen materialean esku hartzeko aurretiazko esku-hartzea

Mankomunitatearen gastuen likidazioak edo obligazioen aitorpenak aldez aurreko esku-hartzearen mende daude, lege batean nahiz baliozkotasunez egindako negozio juridikoetan jatorria izan.

Esku-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidean egingo da, arau honetan adierazitako terminoen arabera.

Inbertsioaren egiaztapen materialaren gaineko esku-hartzea BKFDaren 20. artikuluan xedatutakoaren eta Mankomunitateak horretarako onartutako instrukzioan ezarritakoaren arabera egingo da.

16. artikulua. Ordainketaren gaineko esku-hartze formala eta materiala. Kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak

Kontu-hartzailetzako eginkizunaren barruan sartzen dira, halaber, ordainketaren gaineko esku-hartze formala eta materiala, justifikatu beharreko ordainketa-aginduen eta kutxa finkoko aurrerakinen aldez aurreko fiskalizazioa, eta justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak justifikatzen dituzten kontuen gaineko esku-hartzea.

Esku-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidean egingo da.

Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak justifikatzeko kontuetan adierazitako alderdiak egiaztatzeko, kontuak eta kontu-sail bakoitzaren egiaztagiriak aztertuko dira.

17. artikulua. Kontratazio txikiaren barne-kontrola

5.000,00 €-ko (BEZa kanpo) edo ez dira aldez aurretik fiskalizatuko, obretan, ezta 1.000,00 €-ko (BEZa kanpo) gutxiagoko kontratuak ere, zerbitzuetan, horniduretan eta pribatuetan.

Adierazitako zifrak gainditzen dituzten kontratu txikiak aldez aurretik fiskalizatuko dira oinarrizko betekizunen araubidean, barne-kontroleko instrukzioan ezarritakoaren arabera.

Kontratu txiki guztien obligazioaren onarpenaren gaineko esku-hartzean, BKFDaren 19. artikuluko alderdiak egiaztatuko dira.

Era berean, kontratu txikiak gerora kontrolatu ahal izango dira laginen gaineko finantza-kontrol iraunkorraren barruan. Kontrol hori organo kontu-hartzaileak egindako Finantza Kontroleko Urteko Planean (FKUPan) gauzatuko da.

18. artikulua. Gastuen gaineko aldez aurreko fiskalizazioko eta esku-hartzeko prozedura

Organo kontu-hartzaileak, dagokion ebazpena eman aurretik, eduki ekonomikoko obligazioak edo funts eta baloreen mugimenduak eragin ditzakeen egintza, dokumentu edo espediente oro aztertuko du, aplikatzekoak diren xedapenekin bat datozela ziurtatzeko (aldez aurreko fiskalizazioa). Halaber, dagokion ebazpena eman aurretik, egiaztatuko du obligazioak bat datozela legearekin edo agintaritza eskudunek sinatutako negozio juridikoekin, eta pertsona edo entitate hartzekodunak bere prestazio korrelatiboa bete edo bermatu duela (aldez aurreko esku-hartzea).

Kontu-hartzailetzako organoak, kontu-hartzailetzako eginkizunaren xede diren alderdiak egiaztatu ondoren, fiskalizazioaren edo esku-hartzearen xede den espedientea legearekin bat datorrela jotzen badu, bere adostasuna jasoaraziko du sinatutako eginbide baten bidez, hura arrazoitu beharrik gabe.

Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, dokumentu edo espedienteen funtsarekin edo formarekin, idatziz aurkeztu beharko ditu bere eragozpenak.

Eragozpenak igorriz gero, BKFDaren 12., 14. eta 15. artikuluetan ezarritakoaren arabera tramitatuko dira.

Kontrolak ondorio hauek izango ditu:

- Eragozpen etengarria: arau orokorra da oinarrizko eskakizunen bat ez betetzeagatik gastu- edo ordainketa-obligazioak dakartzaten egintzetarako. Presidenteari dagokio hura kentzea.

- Eragozpen ez-etengarria: desadostasuna eskubideei edo diru-sarrerei buruzkoa denean. Era berean, obligazioetan edo gastuetan, zuzendu daitezkeen eta funtsezkoak ez diren akatsak direnean; kasu horretan, eragozpenak ez du tramitazioa etengo, baina, obligazioa aitortzeko fasea iristen denean, obligazioa eten egingo da funtsezkoak ez diren akats horiek zuzendu ez badira.

- Oharrak: oharrak dituen fiskalizazioak ez du inola ere ondorio etengarririk izango espedientearen tramitazioan, eta ez da bidezkoa izango desadostasun-prozedura.

19. artikulua. Kontu-hartzailetzako eginkizuna ez betetzea

Kontu-hartzailetzako eginkizuna nahitaezkoa izanik beteko ez balitz, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa tramitatu, ezta jarduketa horietan aldeko esku-hartzerik egin ere omisio hori ezagutu eta ebatzi arte.

Kontu-hartzailetzako organoak, espediente baten ardura hartzean, kontu-hartzailetzako eginkizuna betetzen ez duela ikusten badu, hura hasi duen agintaritzari adieraziko dio, eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenari buruz, txosten hori jarduketei

gehituta, presidentetzak erabaki ahal izan dezan prozedurarekin jarraitu ala ez, eta, hala badagokio, bidezkoak diren gainerako jarduketei buruz.

Kontu-hartzailetzako eginkizuna ez betetzea BKFDaren artikuluan xedatutakoaren arabera tramitatuko da.

Presidentetzaren aldeko erabakiak ez du salbuetsiko erantzukizunak exijitzetik, hala balegokio.

20. artikulua. Finantza-kontrola

BKFDaren 29. artikuluan adierazitako finantza-kontrolak xede du egiaztatzea toki-entitate honen sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua egokitzen ote den legezkotasun ekonomikoaren, efizientziaren eta efikaziaren printzipioetara, kredituen lorpen eta erabilera egokia eta zuzena egiaztatuta, baita haiekin finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregulartasuna ere.

Finantza-kontrola Mankomunitatearen gaineko kontrol iraunkorraren modalitatean egingo da, finantza-kontrolaren plangintzan ezarritakoaren arabera.

